



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko apirilaren 4a

23 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Ameriketako zenbait herritan diktadura militarra iraun duen bitartean gertatu diren giza eskubideen bortxaketei buruzko ebazpena. Giza Eskubideen Batzorde Bereziak onartua (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—“Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Tratamendua” eta “Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Bilketa” izeneko aurrekontu-kontusailen betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—“Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—Lezegalden proiektaturiko obrei eta Aralar-Ultzamako beste leze batzutan egin direnei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Nafarroako Gobernuak 1997ko otsailean Nafarroako Parlamentura igorritako Foru Agindu eta Ebazpenak, haien bidez gauzatutako aurrekontu aldaketak eta Kontuen Ganbarak horri buruz emandako txostena (24. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Ekitaldiak

—1997ko martxoan egindako bilerak (41. or.).

—Biltzarreko Idazkaritza Nagusian 1997ko martxoan sartu diren agirien zerrenda (42. or.).

E SAILA:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Ameriketako zenbait herritan diktadura militarrek iraun duen bitartean gertatu diren giza eskubideen bortxaketei buruzko ebazpena

GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE BEREZIAK ONARTUA

1997ko martxoaren 24an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hurrengo Erabakia onartu zuen, besteak beste:

Lehena.- Martxoaren 17an Giza Eskubideen Batzorde Bereziak onartutako Ebazpena berrestea. Testua ondoren datorrena da:

“1. Nafarroako Gorteek kontsideratzen dute Ameriketako estatu batzuetan gertatu diren giza-eskubideen bortxaketa masibo eta sistematikoak genozidiotzat baino ezin direla hartu, eta galtze edo desagertze bortxatuak, gizateriaren aurkako delitu jarraitutzat, jarduketa terrorista handituekin burutu baitira, bahiketa, hilketa, estortsio, umelapurreta eta beste delitu batzuk ere erabili direlarik.

2. Kontsideratzen da Estatuak bide judiziala erabili behar duela aipatu delituen aurka, gehiengotan zigortu gabe geratu direlako, Espainiako hirurehunik gora herritar biktima izan direlarik. Espainiako Estatuak aritzeko ahalmena du eta aritu egin behar du, subsidiarioki, benetako justizi babesa ziurtatzeko.

3. Krimenak gertatu ziren estatuak laguntza juridiko emateari uko egiteak inolaz ere ez du

oztopo izan behar Espainiako Justizia azken muturreraino heltzeko, erantzukizunak galdu eta beterazterakoan. Ondorioz, Espainiako Gobernuak erregu judizialak betetzea galdu behar du, izenpetu diren bi aldeetako hitzarmenak betetz, eta baita Hitzarmenen zuzenbideari buruzko 1969ko Vienako Hitzarmena ere, edota, bete ez diren hitzarmenak eta horiek bete ez dituzten Estatuak dagozkion nazioarteko erakundeen aurrean salatu, zuzenbideko estatu batek bere esku dituen bide guztiak erabiliz.

4. Gobernua premiatzea laguntza politiko eta diplomatikoa eman diezaien prozedura judizialei, oraindik hunkituta dagoen gizartearen justizia eta egia eskariak onartu eta babestea beste helbururik ez baitute, izan ere, justizia eraginkorra izateko, egia argitzeko eta genozidioaren errudunak zigortuak ikusteko eskubidea ukatu egin baitzaio gizarteari.”

Bigarrena.- Erabaki hau Kanpo Aferetako eta Justizia Ministerioei helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñea, 1997ko martxoaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Saila:
GALDERAK

“Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Tratamendua” eta “Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Bilketa” izeneko aurrekontu-kontusailen betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Tratamendua” eta “Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Bilketa” izeneko aurrekontu-kontusailen betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Toki Administrazio Kontseilariak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Tratamendua” eta “Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea. Bilketa” izenekoei buruz egin duen galdera dela-ta, honako hau adierazi nahi du:

1. Kontusail horren erabileraren arauketari ezar dakizkiokeen foru-lege, dekretu eta aginduen zerrenda.

21/1996 Foru Dekretua, urtarrilaren 5ekoa, 1996.eko ekitaldirako Toki Azpiegituretako Obren Plana ezarri eta haren lehentasun, programazio, ekonomi eta finantza araubide eta kudeaketa araubidearen irizpideak onesten dituen (otsailaren 5eko 16 zk.ko NAO).

4/1996 Foru Agindua, otsailaren 5ekoa, Toki Administrazio Kontseilariak emana, 1996.eko Toki Azpiegituretako Obren Plana onesten duena (martxoaren 1eko 27 zk.ko NAO).

216/1996 Foru Dekretua, maiatzaren 20koa, 1996.eko Toki Azpiegituretako Obren Plana onesten duena (ekainaren 7ko 69 zk.ko NAO).

87/1996 Foru Agindua, ekainaren 24koa, Toki Administrazio Kontseilariak emana, 1996.eko ekitaldirako Toki Azpiegituretako Obren Planean sartutako inbertsioak finantzatzeko aparteko erregimena arautzen duena (uztailaren 29ko 91 zk.ko NAO).

2. Foru Agindu eta Ebazpen argitaratuen bidez gauzaturiko gorako aldaketak, eta baita aurrekontuz kanpoko ekarpen edo finantzaketaren ondoriozkoak ere (EEE laguntzak, Elkartasun Fondokak...) 1996ko aurrekontu ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

Gorako aldaketak: (1995eko ekitaldirako kreditu-gainerapenak)

Tratamenduko lerroa:	51.345.672
Bilketako lerroa:	40.180.548

Aplikatzeko arautegia:

1995eko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeko 22.7 artikulua.

Gastu lerro horiek ez dira beste fondo batzuen ekarpenekin gehitu edo osatu.

3. 1996ko ekitaldian eskura izan den guztizko kopuru banatua, eskurako kreditua edo 1995eko ekitaldian hitzartutako kreditua denaren arabera.

Guztira eskura egon den kopurua:

Tratamenduko lerroa:	241.345.672
Bilketako lerroa:	180.180.548

Bi kredituak 1996rako erabilgarriak dira.

4. Aipatu Plan Zuzentzaileak aurreikusitako helburuak erdiesteko, 1996an burutu diren jarduketak, hauexek aipatuz: hasteko urtea, zein herri-tan burutu den, jarduketaren deskribapen laburra,

gutzizko inbertsioa, bukatzeko eguna edo noizko espero den bukatzea.

Erantzuna 4. galderaren eraskin gisa erantsi da.

5.- Plan Zuzentzaileak aurreikusten duen Inbertsio Planaren egungo egoera eta horien epe-mugara arte aurreikusten diren inbertsioak.

Erantzuna 5. galderaren eraskin gisa erantsi da.

6.- Aurreko puntuan eskaturiko inbertsioen banaketa, hurrengoan arabera:

Nafarroako Aurrekontu Orokorren ekarpena, Europako Batasunaren ekarpena, Aurrekontuz kanpoko beste aportazio batzuk.

Kasu guztietan Nafarroako Aurrekontu Orokorren ekarpenak dira.

7. Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea ezartzearen ondoriozko jarduketaren arteko lehen-tasuna erabakitzeke irizpideak.

Jarduketaren lehen-tasunak ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-dotazioak Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzaileara nola egokitu eta horrela ezarri dira.

8. Hiri Hondakin Solidoen Plan Zuzentzailea ezartzearen ondoriozko jarduketak eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak hondakin arloan burutzen dituenak elkarrekin egokitzeko ezarri den sistema.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen irailaren 30eko 428/1996 Foru Dekretuko Bigarren Xedapen Gehigarriak Plangintza eta Koordinazio Batzordeen sorkuntza aurreikusten du. Gehienez ere Departamentu haren hiru ordezkari eta interesaturik dauden Departamentuen beste hiruk leudeke osaturik, modu parekide batean, eta hondakin, ur-baliabide, ibaien saneamendu, ur-hornidura, energia berriztagarri, oihan ondare, osasun eta ingurugiroarekin zuzenean zerikusirik duten bestelako alorrei buruzko arategia planifikatu, programatu, kudeaketa koordinatu eta prestatzeaz arduratuko liriteke.

Dekretuak berak ezartzen ditu Departamentuaren jarduketak. Izan ere, hark, 3. b artikuluan, Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketa eta betearazte eginkizunen artean, "hiri hondakin solidoen kudeaketa ingurugiro kontrola" xedatzen du.

9. Plan Zuzentzaileak hartzen duen aldiaren hartu den gastu-konpromezua gaur egun abiatuta dauden aipatu jarduketak bakoitzarendako.

5. puntuan erantzun zaio.

Hau jakinarazten dizut, Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko otsailaren 3a

Toki Administrazioako Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

1. Eraskina (Erantzuna 4. galderari)

Plana	Entitatea	Inbertsioa	Zenbatekkoa	Ordainketak	Ordain. kontzep.	Epea	Azalpena
93-95 Plana	ESCA-SALAZAR HHS M.	Kontrolrik gabeko zabortegeak ziztatzea	12.481.636	3.134.818	bukaera	3 hilabete	Kontrolrik gabeko 27 zabortege ziztatzea
"	SAKANA MANK.	Kontrolrik gabeko zabortegeak ziztatzea	45.926.766	18.138.054	% 75	6 hilabete	Kontrolrik gabeko 41 zabortege ziztatzea
"	TAFALLA ESKUALDEKO AGR.	Zabortegea hobetzea eta makina	32.250.457	3.312.232	bukaera	10 hilabete	Karterpillar pala 953B, 350 m ³ ko nabea, 300 Ø eta 235 mlko kolektorea eta aldageiak eraikitzea
"	IRUÑERRIKO MANK.	Industri bilketa aukerakoa	349.900.000	107.289.818	bukaera	2,5 urte	18 kamioi konpaktatzaile, 1759 edukiontzi eta 2000 babes
"	BIDAUSI HHS M.	Garajea	8.566.450	3.967.051	bukaera	3 hilabete	107 m ² ko nabea garajerako
"	ZANGOTZA ESKUAL. Z. M.	Paper bilketa aukerakoa	2.800.00	1.756.356	bukaera	8 hilabete	1.000 l.ko 70 edukiontzi
"	BORTZIRIAK HHS M.	Kolektoreak	21.321.923	11.315.249	bukaera	urte 1	97 ml Ø 90 eta 2887 ml Ø 75eko libatuentzako hodia
"	BORTZIRIAK HHS M.	Zabortegea hobetzea	19.955.000	567.372	bukaera	1,5 urte	Gai birziklagarria gordetzeko 343,5 m ² ko nabea
"	MONTEJURRA MANK.	Zabortegeak ziztatzea	38.135.726	10.302.890	bukaera	7 hilabete	131 nukleo ziztatzea
1992 Plana	SAKANA MANK.	HHS Tratamendua	204.351.780	7.292.340	Projek. ordain.	7 hilabete	Arbitzuko 54.951 m ² ko zabortegea (Isurtegia, araztegi zerbitzuak, bideak eta ezpondak)
1992 Plana	10 EREMUA MANK. (AGOITZ)	HHS bilketa	36.356.500	2.132.312	bukaera	3 urte	570 edukiontzi eta 20 m ³ ko kamioi konpaktatzaile 1
93/95 Plana	GOIZUETA-ARANO	Zabortegeak egokitu eta konpon.	4.053.500	3.828.420	bukaera	2 hilabete	Inguruko itxura eta dikea garbitzeko lanak.
"	MONTEJURRA MANK.	HHS bilketako kamoientzako nabea	45.527.167	28.023.359	bukaera	4 hilabete	540 m ² .ko nabea eta 2.100 m ² .ko eragiteko plataforma
"	LEITZA-LARRAUN	HHS nabea eraikitzea	17.463.119	1.626.037	hasiera	3 hilabete	330 m ² ko nabea eta 503 m ³ ko maniobra patioa
1996 Plana	RIBERA ALTA HHS M.	HHS eta paper edukiontziak	3.000.000	2.096.178	bukaera	1 mes	360, 800, 1000 l.ko 88 edukiontzi eta 2,5 m ³ ko 10 (kartona)
"	ALTO ARAXES HHS M.	Paper edukiontziak	1.945.668	1.165.277	bukaera	2 hilabete	3 m ³ ko eta 1.000 l.ko 32 eduki.
"	RIBERA ALTA HHS M.	Kamioi konpaktatzailea	20.000.000	13.225.856	bukaera	2 hilabete	18 m ³ ko kamioia altxatzaile balioaniztunarekin edukiontziak kargatzeko
1996-11-30tik aurrera egindako ordainketak							
1996 Plana	VALLE DEL ARAGON MANK.	HHS edukiontziak	12.00.000	812.000	bukaera	2 hilabete	1.100 l.ko 38 edukiontzi

o 1-1-1996tik 30-11-1996ra hartu diren konpromezuak

Tratamendu lerroa:

Entitatea	Inbertsioa	Inbert., guzt.	Epea	Azalpena
IRUÑERRIKO MANKOMUNIT.	T.Z.tiko isurkien arbasatzea	39.465.631	4 hilabete	1.211 ml Ø 250 mmko PVCko kolektorea, area kentzekoa eta kutxeta
IRUÑERRIKO MANKOMUNIT.	Plataforma elektrikoa	5.104.000	hilabete 1	Artikulatua, 2 pertsona, 230 Kg.
IRUÑERRIKO MANKOMUNIT.	Paper lerroa	16.240.000	2 hilabete	50 CVko prentsa, 260 Kg./cm ² ko presiokoa
IRUÑERRIKO MANKOMUNIT.	Pala zamatzaillea eta atzera mak.	37.120.000	2 hilabete	Pala kateak 19 Tm. 2 m ² ko goiarea eta 160 Hp poten.; 3.000 Kg.ko orga
MONTEJURRAKO MANKOMUN.	Konpaktatu eta biltzeko ekipoa	20.000.000	2 hilabete	25 CVko potentzia, 150/160 Kg.cm ² ko presioa
TAFALLAKO ESQUALDEA	Paper prentsa	13.500.000	2 hilabete	25 CVko potentzia eta 95 m ³ /hko absorbitzeko gaitasuna
RIBERA BAJA MANK.	Nabeak eta zabortegia handiago.	10.897.038	3 hilabete	Prentsa nabea 200 m ² handiagotzea eta aire konprimituarena 124 m ² .
ESCA-SALAZAR MANK.	Zabortegia zigilatzea	233.995	hilabete 1	Hondakin barriatuak bildu, zigilatu eta txartela jartzea

Bilketa lerroa:

Entitatea	Inbertsioa	Inbert., guzt.	Epea	Azalpena
GOZUETA-ARANO	Beira eta paper edukiontziak	1.200.000	2 hilabete	Beira eta paper edukiontziak
ALTO ARAXES	Paper edukiontziak	1.945.668	hilabete 1	3 m ³ ko 15 edukiontzi eta 1.000 l.ko 17
MALERREKA MANK.	Beira eta paper edukiontziak	1.321.472	15 egun	800 l.ko 50 beira edukiontzi eta ahoa itxeko 4 goma
ZANGOTZA ESQUALDEKO M.	Paper edukiontziak	1.437.240	2 hilabete	1.000, 800 eta 250 litroko edukiontzi berde eta urdinak
MONTEJURRA MANK.	Bi kamioi konpaktatzaile	40.000.000	2 hilabete	18 m ³ ko edukiera duten bi kamioi
MONTEJURRA MANK.	HHS edukiontziak	4.000.000	35 egun	1.000, 8000 eta 250 litroko hainbat
TAFALLAKO ESQUALDEA	Kamioi konpaktatzailea	10.500.000	2 hilabete	5 m ³ ko edukiera duen kamioi bat
TAFALLAKO ESQUALDEA	HHS edukiontziak	4.000.000	2 hilabete	Hainbat edukieratako 156 edukiontzi
RIBERA ALTA MANK.	Kamioi konpaktatzailea	20.000.000	2 hilabete	18 m ³ ko edukiera duen kamioia, 240 l. eta 1.100 l.ko edukiontziak altxatzeko altxagailua duena
RIBERA ALTA MANK.	HHS eta paper edukiontziak	3.000.000	hilabete 1	Hainbat edukieratako 98 edukiontzi
VALLE DEL ARAGON MANK.	HHS edukiontziak	1.200.000	2 hilabete	1.100 l.ko 38 edukiontzi
RIBERA BAJA MANK.	Kamioi konpaktatzailea	20.000.000	2 hilabete	Kutxa konpaktatzailea eta altxagailu balioantzasuna duen kamioia
RIBERA BAJA MANK.	Edukiontzi urdin eta horiak	12.000.000	2 hilabete	1.000 l.ko 300 edukiontzi urdin eta 1.000 l.ko bilketa bereziko 100

30-11-1996tik aurrera hartutako konpromezuak

Entitatea	Inbertsioa	Inbert. guzt.	Epea	Azalpena
IRUÑERRIA	Edukiontzia berde eta urdinak	37.120.000	2 hilabete	1000 l.ko 1000 HHS edukiontzi; 1,5 m ³ ko 60 beira eduk. eta 40 2,5 m ² ko
MALEKREKA	Zaborteziak zigilatzea	4.976.286	2 hilabete	11 zabortezi zigilatzea
LEITZA-LARRAUN	Beira edukiontziak	600.000	2 hilabete	Beira edukiontziak

Behin-behineko konpromezuak (1996ko planaren gainerakoa):

Entitatea	Inbertsioa	Inbert. guzt.	Epea
LEITZA-LARRAUN	Zaborteziak zigilatzea	6.000.000	(aurreikusia)
ESCA-SALAZAR	Sarbidea	10.500.000	(aurreikusia)

∞ II. Eraskina. (Erantzuna 5. galderari)

HHS Plan Zuzentzailean egin diren inbertsioen egungo egoera
 HHS kudeaketa planaren laburpen ekonomikoa (bilketak eta tratamendua)
 (milioi pezeta)

ZK	ESKUALDEA	GUZT.	1985	1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996 (3)
1	BORTZIRIAK	180,9	-	-	-	-	-	130,2	-	-	30,7	20,0	-	-
2	BAZTAN	69,1	-	-	8,8	17,6	22,8	-	19,9	-	-	-	-	-
3	GOIZUETA-ARANO	74,9	-	-	-	-	-	-	69,1	-	4,6	-	-	1,2
4	ALTO-ARAXES	30,0	6,5	19,4	-	-	-	-	1,3	-	-	0,9	-	1,9
5	LEITZA-LARRAUN	60,9	-	-	-	-	-	-	25,9	-	10,0	-	17,5	7,5
6	MALERREKA	65,3	0,8	8,1	34,4	-	5,7	-	-	-	10,0	-	-	6,3
7	ULTZAMA (1)	49,8	-	-	0,9	-	-	-	-	38,5	10,4	-	-	-
8	SAKANA	333,4	6,8	-	12,2	-	-	-	-	268,5(2)	-	-	45,9	-
9	IRUÑERRIA	4.367,6	7,1	29,5	47,9	400,1	2.036,4	-	720,2	359,0	163,2	99,4	350,5	154,3
10	10 EREMUA (AGOITZ)	148,7	-	10,2	-	-	-	-	15,1	119,9	-	18,6	-	-
11	LUZAIDE-VALCAR.	15,1	-	-	-	-	-	-	-	26,7	19,8	8,6	-	-
12	BIDAUSI	55,9	-	-	0,8	-	-	-	-	111,2	-	-	15,1	10,5
13	ESCA-SALAZAR	136,8	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2,8	1,4
14	ZANGOTZAKO ESKUALDEA	117,4	-	-	1,6	40,6	51,1	-	19,9	-	-	-	53,9	64,0
15	MONTEJURRA	788,8	-	41,7	1,2	-	419,4	-	19,9	-	25,0	163,7	6,6	-
16	ARGA-VALDIZARBE	100,2	0,5	74,7	14,6	-	-	-	-	-	-	3,8	50,9	27,5
17	TAFALLA ESKUALDEA	242,6	0,6	70,8	11,9	21,5	25,6	-	20,5	-	13,3	-	-	23,0
18	RIBERA ALTA	381,5	0,5	-	-	-	-	265,7	19,9	-	-	72,4	-	1,2
19	VAL. DEL ARAGON	70,2	-	2,1	-	-	-	61,9	-	5,0	-	-	-	45,0
20	RIBERA BAJA	517,4	-	-	66,7	54,6	-	188,3	20,6	6,0	35,3	86,0	15,0	-
	GUZTIRA	7.806,5	4.038,4	4.741,5	4.577,0	5.579,2	11.661,0	5.918,3	6.838,9	6.784,4	4.952,9	5.408,2	5.664,6	5.017,4

(1) ULTZAMA Iruñerian sartuta dago 1994 urteaz geroztik.

(2) Zaborteji kontrolatuaren inbertsioa burutzen ari da (204,4 mp.)

(3) Inbertsioak burutzen ari dira.

H.H.S. PLAN ZUZENTZAILEAREN
INBERTSIO AURREIKUSPENAK
1997-1999KO EPERAKO

Apirilaren 2ko 1997-1999 epeko Toki Azpiegituren Hirurteko Planari buruzko 3/1996 Foru Legean, ondorengo ekarpen hauek azaltzen dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren Kapital Transfereztien kargurakoak:

	1997	1998	1999	Guztira
Tratamendua	220	220	220	660
Bilketa	150	150	150	450

Ekarpen hauen helburua bigarren maila ezartzea izango da kasu batzuetan, eta hadiagotzea beste zenbaitetan. Helburu hauek H.H.S Plan Zuzentzailean biltzen dira, ondoren aipatzen diren ildoen arabera: hondakinen baliabideak berreskuratzea, aukerako bilketa sustatzea eta hondakinen tratamendu bereiztuari irtenbidea bilatzea, beren berreskuratzea eta ondoren balioztatzea egokitu ahal izateko.

“Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1996ko abenduaren 14ko 68 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Toki Administrazio Kontseilariak, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak “Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea” izeneko aurrekontu-kontusailaren betetzeari buruz eginiko galdera dela eta, ondoren datorren erantzuna jakinarazi nahi du:

1.- Kontusail horren erabileraren arauketari ezar dakizkiokeen foru-lege, dekretu eta aginduen zerrenda.

Hona hemen garrantzizkoenak:

– Abenduaren 29ko Nafarroako hondakin-urak saneatzeari buruzko 10/88 Foru Legea (1988ko abenduaren 30eko 159 zk.ko N.A.O.).

– Apirilaren 5eko 82/90 Foru Dekretua, abenduaren 29ko Nafarroako hondakin-urak saneatzeari buruzko 10/88 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena (1990eko apirilaren 20ko 48 zk.ko N.A.O.).

– Abenduaren 29ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 15/95 Foru Legea (1995eko abenduaren 30eko 161 zk.ko N.A.O.).

– Urtarrilaren 15eko 21/96 Foru Dekretua, 1996ko ekitaldirako Toki Azpiegituretako Obren Plana ezarri eta lehentasuna emateko, programatzeko, erregimen ekonomiko finantzarioa eta berau kudeatzeko irizpideak onartzen dituena. (1996ko otsailaren 5eko 16 zk.ko N.A.O.).

– Otsailaren 5eko 4/96 Foru Legea, Toki Administrazio Kontseilariak emana, 1996ko Toki Azpiegituretako Obren Plana onartzen duena (1996ko martxoaren 1eko 27 zk.ko N.A.O.).

– Maiatzaren 20ko 216/96 Foru Dekretua, 1996ko Toki Azpiegituretako Obren Plana onartzen duena (1996ko ekainaren 7ko 69 zk.ko N.A.O.):

– Abuztuaren 5eko 104/96 Foru Agindua, Toki Administrazio Kontseilariak emana, 1996ko NILSA Sozietatearen Inbertsio Plana onartzen duena.

2. Foru agindu eta ebazpen argitaratuen bidez gauzaturiko gorako aldaketak, eta baita aurrekontuz kanpoko ekarpen edo finantzaketaren ondoriozkoak ere (EEE laguntzak, Elkartasun Fondo-

ak...) 1996ko aurrekontu ekitaldian zehar kontusail honetan erabili den kopurua osatu arte.

1996ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 15/95 Foru Legeko 19.5 artikulua 700 milioi pezetako ekarpena ezartzen zuen "Ibaiak araztu eta saneatzea" izenburupean sartzen ziren inbertsioak finantzatzeko.

Era berean, Foru Lege hartako 4.3 artikulua ematen zion aipatu kontusailari gehigarri-izaera, zenbateko honetan: Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazio Departamentuaren artean izenpeturiko Hitzarmenean sartzen ziren obrak egiteko zenbatekoan. Hitzarmena honako honi buruzkoa zen: Hiri Hondakin-urak Araztu eta Saneatzeko Plan Nazionalaren jarduketei buruzkoa, Europako Batasuneko Kohesio Fondeoet lagunduriko proiektuen arabera.

Hau honela, 1996ko ekitaldian zehar, "Ibaiak araztu eta saneatzea" izeneko kontusailak ondoren aipatuko diren gehikuntzak edukiko ditu, eta gehikuntza hauek Europako Batasuneko Kohesio Fondotik etorri diren ekarpen finantzarioen ondorioa izan dira, Saneatzeko Plan Zuzentzailean sarturiko zenbait inbertsiorako erabili direnak:

1.- Martxoaren 6ko 89/96 Ebazpena, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, gastuen aurrekontuko "Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea", 92006-0 lerroa, izeneko kontusaileko kreditua 77.104.113 pezeta gehitzen duena, "Europako Batasunetik etorririko dirusarrerak-Kohesio Fondeoak", 34515-1 lerroa, izeneko aurrekontuko kontusailean izan diren dirusarrera handiangoekin finantziatu dena, beste hainbesteko kopuruarekin. Jaso den ekarpena 1995eko ekitaldian "Iruñerria-Aratzuriko H.U.A.E-ren trataera biologikoa" obra finantzatzeko eman den lehen irtenbide partzialari dagokio.

2.- Abuztuaren 22ko 441/96 Ebazpena, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, gastuen aurrekontuko "Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea", 92006-0 lerroa, izeneko kontusaileko kreditua 749.810.399 pezeta gehitzen duena, "Europako Batasunetik etorririko dirusarrerak-Kohesio Fondeoak", 34515-1 lerroa, izeneko aurrekontuko kontusailean izan diren dirusarrera handiangoekin finantziatu dena, beste hainbesteko kopuruarekin. Jaso den ekarpena "Iruñerria-Aratzuriko H.U.A.E-ren trataera biologikoa" obra finantzatzeko eman den 1995eko ekitaldiko bigarren irtenbide partzialari eta 1996ko ekitaldiko lehen irtenbide partzialari dagokie.

Beste alde batetik, 1996ko Nafarroako Aurrekontu Orokorreko 15/95 Foru Legeko 20. artiku-

luak ezartzen zuen ezen Toki Administrazio Departamentuaren eskumeneko eta Komunitateko Fondeoan (2 eta 5b Helburu) babespeko azpiegituretako inbertsioen Plan Osagarri bat prestatuko zela. Plan honek 1996 urtean Europako Batasunetik jasoko ziren adina dirusarrera edukiko zuen eta obrak, beti ere, 2 eta 5b helburuetan sarturiko udaletan egin beharko lirarteke.

Hau honela, 1996ko ekitaldian. "Ibaiak araztu eta Saneatzea" kontusaileko izendapen ekonomikoa 75.708.621 pezeta gehitu zen, abenduaren 20an Toki Administrazio Kontseilariak emaniko 334/96 Foru Aginduaren bidez, "2 eta 5b Helburuetako komunitateko fondoekin finantzatu beharreko Inbertsio Plan Osagarria" izenekoaren esparruan. Finantzatzen zen inbertsioa "Sesmako igorlea eta araztegia" izenekoaren zen.

Laburbilduz, 1996ko ekitaldian zehar "Ibaiak Araztu eta Saneatzeko Plan Zuzentzailea" izeneko kontusailean izan diren aldaketak honako hauek izan dira:

- Hasierako izendapena 700.000.000 pzta.
- 89/96 Ebazpena, "Iruñerria-Aratzuriko H.U.A.E-ren trataera biologikoa" obra finantzatzeko 1995eko lehen ordainketa (Kohesio Fondea): 77.104.113 pzta.
- 441/96 Ebazpena, "Iruñerria-Aratzuriko H.U.A.E-ren trataera biologikoa" obra finantzatzeko 1995eko bigarren ordainketa eta 1996ko lehena (Kohesio Fondea): 749.810.399 pzta.
- 334/96 F.A. Inbertsioen Plan Osagarria. (2 eta 5b Helburu): 75.708.621 pzta.
- 1996 urtean erabilitako kreditua: 1.602.623.133 pzta.

3.- 1996ko ekitaldian eskura izan den guztizko kopuru banatua, eskurako kreditua edo 1995eko ekitaldian hitzartutako kreditua denaren arabera.

NILSAko Administrazio Kontseiluak 1994ko azaroaren 24an eginiko bilkuran onartu zuen 1995eko Nafarroako Ibaiak Saneatzeko Plan Zuzentzaileko Obren Plana, eta honetan aipatzen zen obrak 200 milioitan burutu ahal izatearen ahalbidea, 1996ko ekitaldiaren kontura.

NILSA Sozietate Publikoak, 1995eko apirilaren 26ko eta maiatzaren 11ko idazkietan, Toki Administrazio Departamentuari eskatu zion 1996ko aurrekontuko ziren eta 200 milioi jotzen zuten obrak egiteko baimena, sozietateak aurreratuko zuela obren finantzazioa aipatuz, eta, bere

garaian, ekarpen ekonomiko egokia eskatuko zela.

Nafarroako Gobernuak, 1995eko maiatzaren 30ean eginiko bilkuran, aipatu jarduketak egiteko baimena eman zuen, 1996ko aurrekontuaren kontura 180 milioiko ekarpena egiteko konpromezua hartuz, kopuru honek aipatu inbertsioen %90 egiten zuelarik.

Beraz, 1996ko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako hasierako izendapenak (700 milioi pezeta) bazuen 1995eko ekitaldian konprometitutako kreditu bat, 180 milioi pezeta jotzen zuena, Nafarroako Gobernuak esandako egunean onartu zuen baimena dela bide.

4.- Plan Zuzentzailean (oinarrizko plana) aurreikusitako helburuak erdiesteko, 1996an burutu diren lurralde zatiketaren arabera (Iparmendebaldea, erdiko ibai arroak, Piriniotako ibarrak, Hegomendebaldea, Erdialdea eta Hegoaldeko Erribera), hauexek aipatuz: hasteko urtea, zein herritan burutu den, jarduketaren deskribapen laburra, guztizko inbertsioa, bukatzeko eguna edo noizko espero den bukatzea.

I. Eskualdea.- Iparmendebaldea

LEITZA: Leitzaan isurkia aztertzen hasi da, emariak neurtuz eta laginak hartuz analitika egiteko. 1997 urtean proiektua prestatu eta obrak hasiko dira, eta obrak 1998an bukatuko dira.

GOIZUETA: 1996 urtean Goizuetako kolektorea eta araztegiaren proiektua idatzi da. Hasieran pentsatzen zen aurten kolektorea egitea eta hala-ko lehen mailako tratamendua ezartzea, eta 1999 urtean bigarren mailako tratamendua ezarri. Hala ere, isurkien azterketek eta analizatutako aukerek erakutsi dute dena fase bakar batean egin daitekeela. 1996ko abenduan obrak esleitu dira, eta 79.777.910 pezeta egiten dute (BEZ barne). 1997 urtarrilean hasiko dira eta burutzeko epea 7 hilabetekoa da.

ELIZONDO-BAZTAN: Elizondo eta inguruko herrietako urak tratatzen dituen araztegia Oharri-zen dago. 1994 urtean jarri zen abian. 1996 urtean ongi funtzionatu du.

ZUBIETA: Zubietako araztegia 1989 urtean jarri zen martxan, eta 1996 urtean zehar ongi funtzionatu du.

DONEZTEBE: Herri honek 1992 urteaz geroztik badu bere araztegia. Funtzionamendua, ona bada ere, Doneztebeko Udalak bere kolektoreen sarean dauzkan arazoak, isurkia diluituegi iristea eragiten dutena, gainditzen dituen hobe-
tuko

da. Azpimarratzekoa da 1996 urtean biodiskoko kojinetek bat ordezkatu dela.

LESAKA: Lesakak 1974 urteaz geroztik badu araztegia. Ongi funtzionatzen du, nahiz eta, Doneztebekoaren kasuan bezala, funtzionamendua hobetuko litzatekeen isurkia hain diluitua iritsiko ez balitz.

ETXALAR: Etxalarrek 1988 urteaz geroztik badu araztegia, eta aurten ongi funtzionatu du.

BERA: Berako araztegia Lesaka-Alkaiagako industrialdean paratuko da. Industrialdearen proiektua arestian burutu da, eta honek ahalezko egin du arazketa-proiektua bukatzea. Une hauetan obrei ekiteko administrazio baimenak bideratzen ari dira. 1997ko urtarrilean izango da lizitazioa eta burutzeko epea 10 hilabetekoa da.

OLAZTI: Olaztik 1991 urteaz geroztik badu araztegia. 1996an ongi funtzionatu du.

ALTSASU-URDIAN: Bi herriek elkarrekin arazten dituzte euren urak, 1993 urteaz geroztik. 1996 funtzionamendua ona izan da.

ETXARRI-ARANATZ: 1992 urteaz geroztik badu araztegia, 1996an ongi funtzionatu duena.

ARBIZU-LAKUNTZA: 1996 urtean bukatu da bi herrietako isurkiak biltzen dituen kolektorea bukatu da, hortaz isurkiaren nolakoa ongi zehazten ahal izan da. Une hauetan araztegiaren proiektuaren idazketa bukatzen ari da. Obra hau 1997 urtean burutuko da.

ARAKIL UHARTE: 1992 urteaz geroztik herri honek badu araztegia, zeina 1996 urtean hagitz ederki ibili baita.

LEKUNBERRI: Lekunberriko araztegia 1995 urtean hasi zen funtzionatzen, eta funtzionamendua ona izan da. 1996 urtean, baina, edariak fabrikatzen dituen enpresa baten isurkiek arazoak sorrarazi dituzte, eta araztegiaren fase biologikoa kendu behar izan da, aipatu industria isurkia horrek sortzen duen arazoa konpontzen ez den bitartean.

IRURTZUN: 1985 urteaz geroztik badu araztegia, zeina 1996 urtean arras egokiro zeratu baita.

ZUGARRAMURDI: 1989 urteaz geroztik araztegia bada, zeina 1996 urtean arrotin ontsa ibili baita.

II. Eskualdea.- Erdialdeko arroak

EUGI: Eugiko araztegia 1993 urtean eraiki zen, eta une horretatik aurrera ongi funtzionatu du.

IRUÑEA-ARATZURI: Iruñerriak badu, 1990 urteaz geroztik, isurkiari lehen mailako tratamendua ematen dion araztegia, baina Arga ibaiaren kalitatea leheneratzeko nahikoa ez dena. Horregatik, 1995 urtean fase biologikoaren obrak hasi ziren, 1998 urte arte iraungo dutenak.

ULTZAMA: 1996 urtean hasi da prestatzen isurkiak bildu eta etorkizuneko araztegiraino eramango duten kolektoreen proiektua. Aurreikuspena da kolektoreak 1997 urtean egitea eta araztegia 1999 urtean.

III. Eskualdea. Pirinioaz harandiko ibarrak

IZABA: 1994 urtean araztegi bat eraiki zen. Une honetan hobekuntza batzuk egiten ari zaizkio, adibidez tratamendu biologikoa egiten duen bio-errotorearen trakzio-ekipoan. Konponketa hau bukatzen ez den bitartean, araztegia lehen mailan baizik ez da ari.

OTSAGABIA: Otsagabian araztegia 1993 urtean egin zen, eta berau 1995 urtean hobetu zen, udan doazen turista ugari horien beharrei ere aurre egin ahal izateko. 1996 urtean ongi funtzionatu du.

IRUNBERRI: Irunberriko isurkiak araztegiaren tratatzen dira 1992 urteaz geroztik. 1996 urtean zehar funtzionamendua ona izan da.

AGOITZ: Herri honek 1976 urteaz geroztik badu araztegia. Funtzionamendua urtean zehar egoki liratekeen errendimenduak harrapatzea galarazten duen tindagai enpresa batek egiten dituen isurkiek baldintzatzen dute.

URROBI-AURIZBERRI: Une hauetan Orreaga, Auritz eta Aurizberriko urak bilduko dituen kolektorearen proiektua prestatzen ari da. 1998 urtean egingo da araztegia.

URROTZ: 1992 urtean egin zen araztegia. 1996 urtean ongi ibili da.

ESA: 1996 urtean herri hartako araztegia abian jarri da. Ongi funtzionatzen du.

ZANGOZA: Zangozan 1992 urtean egin zen araztegia. 1996 urtean ongi ibili da.

CASEDA: Casedan galbahe bat ezarri zen 1991n. Berau ongi dabil. 1999 urtean egingo da araztegia.

IV. Eskualdea. - Hegoekialdea

LIZARRA: 1994 urtean jarri zen abian Lizarrako araztegia, eta ordutik hona errendimendu onarekin lan egin izan du.

ARRONITZ: 1996 urtean Arronizko araztegia lizitatu da, eta obrei irailean ekin zaie. 1997 ekainerako bukatuko direla uste da.

LERIN: 1995 urteaz geroztik badu araztegia. 1996 urtean ongi ibili da.

SESMA: Plan Zuzentzailearen arabera araztegia 1998 egin behar da. Udalak eskatu zuen Sesmako salobrea leheneratzea litekeena ote zen ikusteko azterketa beharrezkoak egin zitezela, orain ur-hondakinek ukitua baita. Horregatik isurkien eta aukeraren azterketa aurreratu zen, eta pentsatu baino lehen ekitea ahalezkoa izango da, Europako Batasunetik datozen bailabideek Planaren erabilgarriak gehiagotzea ekarri baitute.

ZUDAIRI-BARINDANO: Bi herrien isurkiak elkarrekilatan tratatzen dira araztegiaren 1993 urteaz geroztik. 1996 urtean funtzionamendua egokia izan da.

LEZAUN: 1993 urteaz geroztik badu araztegia. 1996 urtean ongi ibili da.

CARCAR-SAN ADRIAN-ANDOSILLA: Hiru herrietako isurkiak bilduko dituen kolektorearen proiektua prestaturik dago iada, eta obrak kontratatzea Europako Batasuneko Kohesio Fondoetatik etorri beharreko ekarpen finantzarioaren ebazpena noiz etorriko zain dago.

V. Eskualdea. Erdialdea

LARRAGA: Larragako araztegia 1995 urtean handiagotu zen eta 1996 urtean ongi funtzionatu du.

AZKOIEN ETA FUNES: Bi herri hauetan ikerketa bat egiten ari da Plan Zuzentzailearen aurreikuspenak eta bi herrietako hirigintza-planeamendua bat etor daitezen.

ALESBES: Alesbesko araztegia 1992 urtean egin zen, eta joan den urtean ongi ibili da.

BARASOIAN-GARINOAIN: Bi herriak batera tratatzen dituen araztegia 1994 urtean jarri zen abian, eta 1996 urtean ongi ibili da.

TAFALLA-ERRIBERRI: Bi herri hauek batera tratatzen dituen araztegia 1988 urtean jarri zen martxan. Ez da nahikoa dauden beharretarako, eta horregatik emari guztiari ematen zaio lehen mailako tratamendua baina emariaren 2/3ei bazik ez zaie bigarren mailako tratamendua ematen. Araztegia handiagotzeko obrei ekiteko Europako Batasunaren Kohesio Fondoetatik datorren finantzazioa espero da.

VI. Eskualdea. Hegoaldeko Erribera

VALTIERRA-ARGUEDAS: Bi herriak araztegi bateratuan tratatzen dira 1991 urtetik. 1996 urtean, beste hainbat urtetan eragiten zuen industri isurkia ezabatu denez, funtzionamendua ona izan da.

MURCHANTE-TUTERA: Murchante eta Tuterako hondakin-urak tratatzeko araztegi obrak finantzatzeko Europako Batasunaren Kohesio Fondoetatik etorriko liratekeenak espero ziren, Carcar, Andosilla, San Adrián, Tafalla eta Erriberriren kasuan bezala, lehen ere esan denez. Espedientea noiz ebatziko den zain daude. 1996 urtean, asmoa zen kolektore-igorlea paratzea, baina atzeratu egin behar izan da.

CORTES: 1982 urteaz geroztik badu araztegia, 1992 urtean ongi funtzionatu duena.

FITERO: Fiteroko araztegia 1992 urtean hasi zen abian, eta 1996 urtean ongi funtzionatu du.

CINTRUENIGO: 1995 urteaz geroztik badu araztegia, eta 1996 urtean ongi funtzionatu du.

CORELLA: Hemen ere 1995 urtean jarri zen martxan, eta 1996 urtean ongi ibili da.

MONTEAGUDO: Plan Zuzentzailearen aurreikuspenak beteaz, 1996 urtean hasi dira arazteko lanak herri honetan. 1997ko martxoan bukatzea espero da.

CASCANTE: 1989 urteaz geroztik araztegia badu, eta berau 1996 urtean ongi funtzionatu du.

ABLITAS: 1983 urteaz geroztik araztegia badu, eta 1996 urtean ongi funtzionatu du.

Dauden araztegiak NILSA enpresa publikoaren ikuskaritzapean ustiatzen dira, eta enpresa honek egingo du 1997ko martxoan 1996ko ekitaldian zehar izan den funtzionamenduari buruzko txostena, analisiak eta ordaindutako kostuak ere zehaztuko direlarik. Funtzionamenduaren kontrola hileroko egiten da eta emaitzak aldi berean bidaltzen dira instalazioen jabe diren Toki Entitateei, Konfederazio Hidrografikoei eta Nafarroako Gobrenuaren Ingurugiro Zerbitzuari.

NILSAk berak kudeatzen du funtzionamendukoaren finantzazioa, Saneamendu Kanonaren kontura.

Ondorego koadroan honako datu hauek biltzen dira: 1996 urtean finantzatu beharreko urteko kostuak, araztegi bakoitzetik ateratzen den uretan lortzen den oxigeno eskaera biologikoaren balorea eta berau kentzean espero daitekeen errendimendua (%etan). 1996an lortu beharreko batez besteko errendimendua %80 da.

Ibai-arroa	Araztegiak	Kostua (Pzta)	Oeb5 atera (Mg/L)	Errendim. Oeb5 (%)
Bidasoa	Elizondo	2.825.550	21	87
	Zubieta	985.372	25	83
	Doneztebe	1.605.274	20	62
	Lesaka	7.589.810	22	65
	Etxalar	1.277.966	12	88
Urdazuri	Urdazubi	643.822	120	40
	Zugarramurdi	996.757	32	91
Arakil	Olazti	2.317.986	33	89
	Altsasu	4.895.550	8	93
	Etxarri-Aranatz	1.604.716	25	83
	Uharte-Arakil	1.349.026	19	67
	Irurtzun	2.837.711	21	84
Larraun	Lekunberri	872.091	20	90
Arga	Eugi	491.832	20	73
	Aratzuri	254.505.825	206	35
	Larraga	1.327.431	25	93
Ubagua	Lezaun	216.410	21	93
Urederra	Zudairi-Barindano	748.000	36	88
Ega	Lizarra	40.226.875	20	93
	Lerin	2.278.048	15	97
Zaraitzu	Otsagabia	1.321.738	25	93
Erroibar	Urrotz	470.872	10	93
	Agoitz	6.166.116	55	61
Irati	Irunberri	1.696.365	24	77
	Izaba	829.967	25	85
Ezka	Barasoain-Garinoain	653.499	16	95
	Tafalla-Erriberri	27.315.000	40	83
Aragoa	Zangoza	1.350.140	20	94
	Caseda	218.592	--	--
	Alesbes	2.713.046	18	94
Ebro	Bargota	369.646	210	40
	Valtierra-Arguedas	1.885.925	75	74
	Cortes	4.858.700	45	80
Alhama	Fitero	1.605.285	45	86
	Cintruenigo	3.301.650	25	92
	Corella	3.752.938	25	92
Queiles	Ablitas	5.189.500	21	95
	Cascante	3.570.905	49	83

Era gehigarrian, eta saneamenduaren kanonaren kontura finantzatzen dira biztanleria txikien duten herrietako fosa septikoen mantenimendua eta garbiketa-kostuak, instalazioaren lohien kudeaketa eta araztegi guztietako ekipo elektromekanikoen mantenimendua.

5. Plan Zuzentzaileak aurreikusten duen Inbertsio Planaren egungo egoera eta horien epe-mugara arte aurreikusten diren inbertsioak.

Denbora-erreferentzia moduan 1996ko azaroaren 30a hartzen badugu, Plan Zuzentzailearen jarduketak hasi zirenetik (1989) egin diren inbertsioek 7.441,3 milioi egin dute, eta horietatik 6.625 milioi Plan Zuzentzailean bertan aurreikusten diren jarduketei dagozkie, eta 816,3 milioi jarduketa hauen osagarri gisa bultzatu diren beste hainbat jarduketari dagozkie (Zoladurak, industri arazketa, hornidurak, etab.). Azken hauek Plan

Zuzentzailearen baliabideak gutxiagotu gabe finantzatu dira.

Ondorengo koadroan ikusten ahal dugu Plan Zuzentzailearen obren xehetasuna, urteko Inbertsio Planaren arabera sailkatuta:

Urtea	Inbertsioa Guztira (milioiak)	Egindako jarduketak
1989	269,6	19
1990	980,6	30
1991	1.067,8	33
1992	915,9	26
1993	639,2	13
1994	687,3	32
1995	905,4	31
1996	1.159,2	20
Guztira	6.625,0	204

1989, 1990, 1991, 1992 eta 1993ko ekitaldiei dagozkien inbertsio planak erabat burutu dira. 1994 eta 1995eko ekitaldietako planak, eginda daude %88,3 eta %92,6an, hurrenez hurren, zeukaten aurrekontuei begiratzen badiugu. 1994ko planak 3 espediente dauzka bukatu gabe eta 1995eko planak, beste 2.

1996ko Inbertsio Planari dagokionez, espediente guztiak burutzen ari dira, eta horietatik 8

bukatu dira. Orain arteko aurrekontu-betetzeak zegoen izendapenaren %44,3 hartzen du.

Epe-mugara arte (2005 urtea) aurreikusten diren etorkizuneko inbertsioei dagokienez, 1. Eraskinak 1997-1999 Hiru Urtekoan aurreikusten diren jarduketan berri ematen du, eta 2. Eraskinak Europako Batasunaren Kohesio Fondoarekin finantzatu nahi diren obren egoearen berri ematen du.

Azkenik, 2005 urteko mugarekin ekin behar zaizkien obrei buruz Plan Zuzentzaileak dituen aurreikuspen orokorreari bagagozkie, esan behar da Nafarroako Gobernuak 1996ko urtarrilaren 22an onartu zuen Plan Zuzentzailearen gaurko-tzean ezarri zuen egutegiari eutsi egiten zaiola.

6.- Aurreko puntuan eskaturiko inbertsioen banaketa, hurrengoaren arabera:

- Nafarroako Aurrekontu Orokorren ekarpena
- Europako Batasunaren ekarpena
- Aurrekontuz kanpoko beste aportazio batzuk

Datozen koadroetan ikusten ahal dira, banatuta eta milioi pezetatan, inbertsioak eta euren finantzazio-iturriak, denborazko erreferentzia 1996ko azaroaren 30 delarik.

1. Koadroak 1989-1996 aldiko inbertsio planen xehetasunak biltzen ditu

1 Koadroa

Urtea	Inbertsioa, guztira	Ekarpenak Nafarroako A.O.tik	Ekarpenak Kohesio Fondotik	Beste hainbat ekarpen (*)	Saneamendu Kanona
1989	269,6	242,6		--	27,0
1990	980,6	882,5			98,1
1991	1111,3	961,1		43,5	106,7
1992	1171,8	824,3		255,9	91,6
1993	1047,9	575,3		408,7	63,9
1994	781,9	618,6		94,6	68,7
1995	917,1	639,3	156,0	11,7	110,1
1996	1161,1	288,6	670,9	1,9	199,7
Guztira	7441,3	5023,3	826,9	816,3	765,8

(*) Plan Zuzentzailean dauden obren osagarriak bezala sustatzen diren obren finantzazioari dagokio (Industria arazketa, hornidura, zoladurak, eta abar)

2. Koadroak 1997-2002 aldiko inbertsio planentzako aurreikusitako diru-izendapenak biltzen ditu, eta aurreikusten diren finantzazio-iturriak.

2 Koadroa

Urtea	Inbertsioa, guztira	Ekarpenak Nafarroako A.O.tik	Ekarpenak Kohesio Fondotik	Saneamendu Kanona
1997	2810,0	704,0	1544,0	562,0
1998	2964,5	706,0	1665,6	592,9
1999	1355,5	706,0	378,4	271,1
2000	1123,0	898,4		224,6
2001	1249,0	999,2		249,8
2002	1206,9	965,5		241,4
Guztira	10708,9	4979,1	3588,0	2141,8

7. 1996ko aurrekontu ekitaldian definitu, hasi edo bukatu diren programatu gabeko jarduketa osagarrien zerrenda, hurrengoak aipatuz: hasi den urtea, burututako edo aurreikusitako guztizko inbertsioa, herria, zehaztaperen laburra eta noizkoa bukatuko edo edo noiz bukatu den.

Saneamenduko Plan Zuzentzaileak adierazten duen bezala, programaturik ez dauden jarduketa osagarriak urtetik urtera definitzen dira, Nafarroako Gobernuaren Osasun eta Ingurugiro Zerbitzuek, Konfederazio hidrografikoei eta Toki Entitateek berek egiten dituzten eskaerei kasu ginez.

Azken urte hauetan ibili izan den irizpide orokorra honako hauexa izan da: euren saneamendusareen berritzeari ekin dioten eta Hiru Urteko Planaren barruan aukeratuak eta lehentasuna emandakoak izan diren toki entitateen araztegiak paratzea.

Obren burutzea eta erabilgarritasun finantzarioak bat etor daitezten, NILSAk eskatu izan du, batzuetan, Nafarroako Gobernuaren baimena obrak aurrez finantzatu ahal izateko.

1996ko aurrekontuaren kontura finantzaturiko obrak honako hauek izan dira:

– *Iruñerriko hobi septikoa*: Iruñerriko hiriguneetan egindako jarduketak.

Izendapena: 50.500.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 43.197.349 pzta.

Kudeaketa-egoera: Behin-behinean harrera eginda

– *Larraona*: Kolektore orokorra eta hobi septikoa

Izendapena: 12.500.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 13.323.959 pzta.

Kudeaketa-egoera: Behin-behinean harrera eginda

– *Itzaltzu*: Kolektore orokorra eta hobi septikoa

Izendapena: 5.500.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 5.136.645 pzta.

Kudeaketa-egoera: Behin-behinean harrera eginda

– *Arantza*: Kolektore orokorra eta hobi septikoa

Izendapena: 24.500.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 13.513.606 pzta.

Kudeaketa-egoera: Betetzen ari da

– *Villamayor de Monjardin*: Kolektore orokorra eta hobi septikoa

Izendapena: 8.500.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 7.080.326 pzta.

Kudeaketa-egoera: Behin-behinean harrera eginda

– *Elizagorria*: Kolektore orokorra eta hobi septikoa

Izendapena: 6.500.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 5.513.761 pzta.

Kudeaketa-egoera: Behin-behinean harrera eginda

– *Goñerri*: Kolektoreak eta hobiak Ibarreko hainbat gunetan (Artetako akuiferoa)

Izendapena: 33.900.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 23.669.604 pzta.

Kudeaketa-egoera: Betetzen ari da

– *Mugiroko kolektorea*: Autobiako obrek Benta inguruan eta Aralarko kanpinaren inguruan ukitu duten eremua biltzen duen kolektorea, gero Lekunberriko araztegiarekin lotzeko.

Izendapena: 28.000.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 26.205.041 pzta.

Kudeaketa-egoera: Behin-behinean harrera eginda

– *Bera (ibaia zeharkatzea)*: Bidasoa ibaia zeharkatzeko kolektorea, Zia errekatik Alkaiagako industrialderaino, han araztegia paratuko delarik.

Izendapena: 15.000.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 12.468.706 pzta.

Kudeaketa-egoera: Behin-behinean harrera eginda

– *Errezu*: Kolektorea eta hobi septikoa

Izendapena: 15.000.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 15.965.769 pzta.

Kudeaketa-egoera: Behin-behinean harrera eginda

– *Ituren-Ezkurra*: Kolektoreko obren zatikako finantzazioa, hornidura-obrekin batera burutzen ari dena, Ituren eta Elgorriagako hondakin-urak Doneztebeko araztegiara eramateko.

Izendapena: 45.000.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 18.479.428 pzta.

Kudeaketa-egoera: Betetzen ari da

– *Donamaria*: Donamariako eta auzoetako kolektorea eta dekantadorea zein iragazkin biologikoa dituen araztegia.

Izendapena: 66.200.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 24.811.106 pzta.

Kudeaketa-egoera: Betetzen ari da

– *Iribas*: Kolektorea Lekunberriko araztegiaraino edo araztegi independentea, nahikoa ez den gaur egungo instalazioa osatzeko.

Izendapena: 15.000.000 pzta.

96-11-30ean burutua: 0 pzta.

Kudeaketa-egoera: Aztartzen ari den obra, hantxe egin beharreko beste hainbat obrarekin batera koordinatu behar delako.

8. Industri edo zerbitzu jarduerak sortzen dituzten isurkiak direla eta, entitate pribatuek burutu dituzten ur arazketa lanetako inbertsioei emandako laguntzen zerrenda, hurrengoak aipatuz: noiz eskatu diren, eskatzen duen enpresa, herria, jarduketaren zehaztapen laburra eta laguntza eman den eguna.

Toki Administrazioiko Kontseilariaren ekainaren 3ko 83/96 Foru Aginduan ezarritakoarekin bat, eta ekainaren 14ko 72 zk.ko NAO n argitaraturiko iragarkiarene bidez, isurkien kalitatea hobetuko duten neurriak hartzeko laguntzak emateko deialdia abian jarri zen.

Deialdi horren barruan 14 espediente onez ebatzi dira, eta 3. Eraskinean euren zerrenda ageri da, eskatutako datuekin batera.

9.- 1996an Plan Zuzentzailearen babespean burutu diren jarduketak, lurlantze eta lur ustiatzetik zein abeltzaintza-ustiapenetatik eratorritako jarduketa okerrak, nekazaritza edo abeltzaintza kutsadura sortu duten edo sor dezaketenak, saihesteko.

Nekazaritzan eta abeltzaintzan jatorria duen kutsadura konpontzeko, egin diren azterketak egin eta gero, Plan Zuzentzaileak, bere 9. Kapituluan, Nekazaritza eta Abeltzaintza-kutsaduraren tratamendua izenekoan, adierazten du Nafarroan bi kutsadura mota hauek beren esparruan bertan konpon daitezkeela, jarduera hauek ubideak kalteu gabe.

Hala, Nekazaritza Departamentuak, Ingurugiro Departamentuak eta ukitutako Toki Entitateek, elkar harturik, aurrera eramaten dute ikerketalero bat, eta nekazaritza zein abeltzaintza mailako jardun onak bultzatzen dituzte.

Azterketa areagotzen da araztegia duten herrietan eta epe laburrean jarduketaren bat egin nahi den tokietan.

Isurkiaren ezaugarriak zehaztu ondoren abereen errolda begiratzen da, isurkiak egiten diren tokia ere bai, eta hartu den irtenbidea zein den aztertzen da, isurki hauek araztegiaren gainean edo hartzen dituen inguruaren gainean eduki ditzaketan efektuak neurtzen direlarik.

1996 urtean Anue eta Ultzama ibarretako abeltzaintza-isurkien ezaugarriak zehaztu dira helburu honekin. Laster egingo da mota honetako beste ikerketa bat Baztanen.

Ingurugiro Zerbitzuak jarduera hauen ondorio diren eraginak kontrolatzen ditu, bai Jarduera Sailkatuen Erregelamenduaren bidez eta bai Arrain Hazkuntzako Antolamendua Planen ondorioa diren Kudeaketa-Planak ere.

10.- Jarduketa bakoitzean ezarri beharreko tratamendua erabakitzeke erabili diren aldagaiak.

Hirigune bakoitzean zer tratamendu-sistema aplikatu behar den erabakitzeke erabili diren aldagaiak honako hauek izan dira:

a) Kalitatearen mailako helburua lortzeko beharrezkoa den errendimendua, ingurune hartzaileari aplikatzen zaizkion eredu onoriozko eskakizunen arabera.

b) Sistema aplikatzen zaion biztanleriaren munta, tokiko sareak biltzen dituen husketa guztiak aintzat hartuz. Isurkiaren ezaugarriak.

c) Isurkien aldizkakotasuna, araztegiak jasozten dituen kargetan izan daitezkeen aldaketak kontuan hartu ahal izan dezan.

d) Ondorengo faseetan tratamendu-sistema zabaltzeko ahalbideak, eta hurbileko hiriguneen isurkiak metatzea.

e) Ukitutako zoluaren espazio-erabilgarritasuna eta kategoria, babes-mailak kontuan hartuz.

f) Eskualdeko klimatologia

g) Zoluaren iragankortasuna eta ezaugarri geoteknikoak iragangaitz artifizialak paratu ahal izateko beharrezkoa denean eta zimentazioak aurreikustea.

h) Ureztatzeko arazten den ura berriz erabiltzeko eskaera.

Horren guztiaren arabera ondorengo irtenbide hauek aplikatzen dira:

-Dekantatzailea-digestorea: 500 biztanle baino gutxiago daukaten guneeetan, ingurune hartzailea sentibera ez denean.

- Dekantatzailea-digestorea + Iragazki perkoladorea edo lakutzea: 500 biztanle baino gutxiago daukaten guneeetan, ingurune hartzailea sentibera denean.

- Ur gordinaren galbahetzea, lehen mailako dekantazioa, tratamendu biologikoa, bigarren mailako dekantazioa: 500 biztanle baino gehiagoko gunee guztietako araztegiatan.

Bere aldetik, tratamendu biologikoa ondoren esaten den bezalako izan daiteke:

- Iragazki perkoladorea edo bakterio-ohea: tratamendu biologikoa (bigarren mailakoa), asko erabiltzen dena errendimendu ona duelako, malgua delako, energia kostu txikia duelako eta erraz ustiatzen delako. Betetzen duen batez besteko azalera 2 m² biztanleko izaten da.

- Biodiskoa edo bio-errotorea: Bakterio-ohea bezalako tratamendua, paisaiaren aldetik balio handikoak diren tokietan edo eta baldintza klimatologiko oso gogorak dituztenetan erabiltzen dena. Azalera gutxi betetzen du.

- Lakutzea: Daukan abantaila da hondakin-uretako elementu patogenoak indargabetu egiten direla, eta bere energia-kontsumoa hutsa dela. Dekantazioa lakuetan bertan geratzen da. Azalera handia behar izaten du (10 m² biztanleko baino gehiago). Aurreko sistemekin nahastuz gero hirugarren mailako sistema bezala erabil daiteke.

- Lohi bizkortua: Oso zabaldua dagoen sistema da, azalera txikia behar duena, nahiz eta bere

energia-kontsumoa handia den eta arreta jartzea eskatzen duen.

-Sistema nahasiak: Hemen lortu nahi dena da etapa guztietan prozesu bakoitzaren abantailak profitatzea. Adibidez, lehen mailako dekantazioaren ondoren karga handiko iragazki perkoladorea jar daiteke kutsadura organikoaren lehen mailako jaitziera lortzeko modu erraz eta ekonomikoan. Tarteko dekantazio baten ondoren lakutze bat egin daiteke, arriskuak aurreikusten badira edo lohi bizkortu bat, gai organikoak kentzen segitzeko amoniakoa ere ezabatzen denarekin batera.

Kasu guztietan lohiak 91/271 Jarraibideak ezartzen duenaren arabera tratatzen dira, baita zoluei aplikagarriak direnen arabera ere. Normalean egiten dena da loditzea eta hotzean liseritzea, ondoren nekazaritzan erabiltzeko. Zenbaitzuetan hiri hondakin solidoekin konpostatzen dira, eta inoiz edo behin, gaitasun handiagoko araztegiatar lekualdatzen dira, bertan arazorik dagoenean, modu honetan sortzen diren lohi guztiak egoki tratatzen eta aplikatzen direla bermatzen delarik.

11.- Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea ezartzearen ondoriozko jarduketan edo obra burutzeen arteko lehentasuna erabakitzeke irizpideak.

Berraztertu den Plan Zuzentzaileko 7. kapitulu bertan, erabiltzen ari diren lehentasuneko irizpideak ezartzen dira:

“- Lehena. Ubideetan ahalik eta eragin onena lortzea bilatu da. Honek gehienetan esan nahi du lehenik isurkirik kutsakorrenak tratatu behar direla, lehentasuna emanez ibaiko goiko aldeetan sortzen direnei ibaiko beheko aldeetan sortzen direnen aurrean. Irizpide honek balio du izaera orokorrean, baina aldatu daiteke toki baten baldintza bereziak ahalik eta epe laburren zuzendu beharreko kutsadura-gunea sortzen ari direnean. Hau gertatzen da isurkiek ur-hartune, lurrazpiko baliabide hidraulikoak dituzten zoru iragankor edo bai-nuak dauden tokien gaineko eragina sortzen dutenean.

- Bigarrena. Behar diren inbertsioak/ezabatutako kutsadura erlazioan errentagarritasunik handien duten jarduketak aukeratzen dira. Irizpide hau, partez, aurrekoarekin bat dator, gehienetan ekonomikoagoak direlako, biztanleko, gunee handietan egiten diren jarduketak gunee txikietan egiten direnak baino.

- Hirugarrena. Jarduketak programatu direnean oreka lortu nahi izan da jarduketa zer ibai-arroan egiten zen eta Plana garatzeko urteen artean. Honela ibai-arroetako kalitate-mailen hurrenez

hurreneko hobekuntza, eta ahal den neurrian aldi berekoa lortu nahi da.”

12.- Ibaiak araztu eta saneatzeko Plan Zuzentzailea ezartzearen ondoriozko jarduketak eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak prestatu dituen Arrain Hazkuntzako Antolamenduaren Planek dituztenak elkarrekin egokitzeko ezarri den sistema.

Plan Zuzentzailea indarreko Arrain Hazkuntzako Antolamenduaren Planak aintzat hartuz prestatu zen, Ingurugiro Departamentuak prestakuntzan parte hartu zuelarik.

Gainera, Ingurugiro Departamentua NILSAko Administrazio Kontseilukoa bada. Departamentu horrek berak tramitatzen du araztegi bakoitzeko espedientea, igortzen zaionean, dagokion Toki Entitatearen bidez, Jarduera Sailkatuen Erregelamenduak ezartzen duen gisan.

Ingurugiro Departamentuak, Toki Administrazio Departamentuak eta NILSAk osatzen dute Askotariko Batzordea, 1989 urteaz geroztik biltzen dena Saneamendu Plan Zuzentzailearen esparruan egin diren jarduketan nolakoa aztertze, eta beharrezkoak diren koordinazio neurriak ezartzeko.

13.- Plan Zuzentzaileak hartzen duen aldiari hartu den gastu-konpromezua gaur egun abiatuta dauden aipatu jarduketara bakoitzarendako.

Saneamendu Plan Zuzentzailea hondakin-uren saneamendu alorrean dauden arazoak konponitzeko eta planifikatzeko tresna da. Honetaz gain, lehen aipatu 10/88 Foru Legea indarrean dago. Bi gauza hauek horrela izanik, 1996-2002 epean finantzatu beharreko gastuak definitu eta zenbatu dira Plan Zuzentzailearen beraren baliabideen kontura, eta honek esan nahi du nolabaiteko konpromezua badagoela finantzazio horren etorkizuneko bermeari buruz.

Saneamendu Plan Zuzentzailearen gaurkotzea Nafarroako Gobernuak onartu zuen 1996ko urtarrilaren 22an, eta gaurkotze horrek ondoren ematen den eskemaren arabera zenbatzen ditu gastu horiek, milioi pezetatan:

– Obren burutzea:	13.256,69
– Araztegien ustiapena:	4.048,23
– Konponketa-fondoa:	952,39
– Toki Entitateen kredituak:	699,83
– Entitate pribatuentzako laguntzak:	1.415,00
– NILSAko egitura:	826,00

Gastu hauek ondoren aipatzen diren dirusarrenten kontura finantzatzeko dira, hauek ere milioi pezetatan:

– Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik datozen ekarpenak:	5.679,12
– Europako Batasuneko Kohesio Fondoa:	5.004,00
– Saneamendu Kanona biltzea, 26,63 pzta/m ³ jotzen duen tarifa izan duena aztertzen den aldiari:	9.610,02
– 1989-1995 epeko saldoa, aplikatzeke dagoen saneamendu kanona biltzetik datorrena:	905,00

Zenbait gasturen konpromezu-mailak ekartzen du berau egitea Planaren indarraldian ez egitea zaila izatea (aurreko urteetan hitzartutako urteaniztatetako obrak, araztegi-tako ustiapen-gastuak, Plana abian jarri baino lehen toki entitateek hitzartutako kredituak, hitzarmen espezifikoetan biltzen direnak, kudeaketaren egitura, eta abar). Alabaina, beste hainbat kontzeptu, adibidez etorkizuneko obren sustapena, entitate pribatuentzako laguntzak, eta abar, aurrekontuetan erabilgarria denarekin eta kanonetik espero daitekeen bilketarekin egokitzen ahalko lirarteke.

Eta hau guztia jakinarazi nahi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondorengoek ezartzen dutena betez.

Iruñean, 1997ko otsailaren 3a

Toki Administrazioako Kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

1. eraskina. Ibaien Saneamendurako Plan Zuzentzailearen barruko 1997-1999 Hirurteko Planak aurreikusitako obrei buruzko txostena.

Hirurteko Planak aurreikusitako obrak Nafarroako Ibaien Saneamendurako indarreko Plan Zuzentzaileak programatu dituenak dira.

Plan Zuzentzaileak, arto bakoitzeko kalitate helburuak finkatu ondoren, kasuan-kasu erabiliko diren tratamendu sistemak definitu eta funtzionamenduari lotutako ustiapen sistemak ezarri ditu.

Lau irizpideren arabera eman zaie lehentasuna obrei:

– Lehena. Ibaibideentzako ondorioz onena lortu nahi izan da. Horrek esan nahi du gehien kutsatzen duten isurkiak tratatu behar direla lehenengo eta behin, ibaian gora gertatzen direnei lehentasuna emanez ibaiaren beheko aldean gertatzen direnekiko. Irizpide orokorra dugu hori, baina aldatu egin daiteke guneren bateko baldin-

tza bereziek toki kutsadura sorrarazten badute, epe laburragoan konpontzeko. Horixe gertatzen da isurkiek eragina izan dezaketenean ur hartune-etan, lurpeko ur baliabideetan edota bainuak hartzeko tokietan.

– Bigarrena. Behar diren inbertsioak/ kendutako kutsadura erlazioaren arabera errentagarritasunik handiena ematen duten jarduketak hobesten dira. Irizpide hori bat dator, hein batean, lehenengoarekin, gune nagusietako jarduketan biztanleko kostua txikitakoa baino gutxiago izaten baita.

– Hirugarrena. Jarduketak programatzerakoan, oreka lortu nahi izan da ibai arroen arteko banaketan, Plana garatuko den urteetan zehar. Hartara, mailakako hobekuntza lortu nahi da, ahal izanez gero aldi berekoa, aipatu arrotako kalitate mailetan.

Planak xedatu du programatu gabeko jarduketa osagarriak urtero-urtero definituko direla, Nafarroako Gobernuak Osasun eta Ingurugiro Zerbitzuek, Konfederazio Hidrografikoei eta Toki Enteei berek egindako eskakizunei jaramon eginenez, bereziki.

Hurrengo laukian paratu dira 1997-1999 Hiruterako aurreikusi diren obrak:

Obra	1997	1998	1999	Guztira
Allo – Deikaztelu	90,00	24,00		114,00
Leitza	149,00			149,00
Ultzama	143,16		85,00	228,16
Arbizu - Lakuntza	170,00			170,00
Artaxona		101,27		101,27
Miranda de Arga		80,40		80,40
Obanos–				
Gares		173,00		173,00
Urrobi – Aurizberri		214,00		214,00
Baztan iparraldea			229,00	229,00
Zarrakaztelu			153,00	153,00
Cáseda			64,00	64,00
Falces I			10,00	10,00
Azkoien – Funes I			60,00	60,00
Santacara			62,00	62,00
Iruñerriko hobi-zuloak	90,00	90,00	90,00	270,00
Osagarria	237,85	199,83	129,50	567,18
Guztira	880,01	882,50	882,50	2.645,01
Finantzatzea	1997	1998	1999	Guztira
A.O.tik datozen ekarpenak, %80	704,00	706,00	706,00	2.116,00
Saneamendu kanona, %20	176,01	176,50	176,50	529,01
Guztira	880,01	882,50	882,50	2.645,01

2. eraskina. Saneamendurako eta Arazteko Plan Nazionala- Kohesio Fondoak.

1. Sarrera.

Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioak Departamentuak 1995eko otsailaren 27an izenpetu zuten hitzarmenak hauxe aurreikusi zuen: 1995-2004 aldiran Nafarroan egin beharreko arazte-obrek 16.900 milioi pezeta joko dutela, Ministerioak bere gain hartuko duelarik Europako Batasuneko Kohesio Fondoaren baliabideak bideratzeko konpromezua, aipatu obrak finantziatzeko, 5.064 milioi pezeta, alegia.

Hitzarmenaren II. eraskinean ageri da Kohesio Fondoak finantziatu beharreko proiektuak, hurrengoak zehaztuz:

1.- Arazte-irruñerriko hondakin-uren araztegi-ko tratamendu biologikoa.

Zenbatekoa: Inbertsioa, guztira: 3.812 milioi pezeta.

2.- Ebro ibaiko arrea araztea: Tuterako, Tafalla-Erriberri (handitzea) eta Cárcar-Andosilla-San Adriángo hondakin-uren araztegiak.

Zenbatekoa: Inbertsioa, guztira: 2.314 milioi pezeta.

Kohesio Fondoaren aportazioak ateratzeko, diruz lagundu daitezkeen inbertsioen kostuei %80 aplikatu behar zaie, gainerako %20 NILSAk finantziatuko duelarik ur-kanonarekin.

3.- Arazte-irruñerriko hondakin-uren araztegi-ko tratamendu biologikoa.

1995eko otsailean aurkeztu zen, Fondoaren erregelamenduen arabera, Arazte-irruñerriko tratamendu biologikoari zegoen espedientea. Hona inbertsioen programazioa:

Urtea	Inbertsioa
1995	200 MII pzta
1996	1.700 MII pzta
1997	1.000 MII pzta
1998	912 MII pzta
Guztira:	3.812 MII pzta

Europako Elkarrekin Batzordeak aldeko erabakia eman zion espedienteari, 1995eko abenduaren 7ko Erabakian. Orain arte 1995eko urteari eta 1996ko lehen ordainketari zegoen espedienteari jaso dira.

Iruñerriko Mankomunitateari dagokio obraren kudeaketa, bere eskumenen esparruan. Jarrai-

pen tekniko eta administratiboa egiteko batzordea osatu da, Mankomunitateko teknikariek, Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazio Departamentukoekin eta NILSA sozietate publikoekin.

Obra ondo doaz, aurreikusitako planen arabera, 1996ko urrira arte 935 milioi pezeta inbertitu direlarik, guztira, guztizkoaren %24,5, alegia.

4.- Ebro ibaiko arroa araztea: Tuterako, Tafalla-Erriberri (handitzea) eta Cárcar-Andosilla-San Adriángo hondakin-uren araztegiak.

“Ebro ibaiko arroa araztea” izenburupean sartzen diren obrei buruz, hurrengo koadroan zehazten dira aurreikuspenak, mila pezetatan:

Proiektuak	1996	1997	1998	1999	Guztira
1.- Tuterako kolektorea	70.000	525.000			595.000
2.- Cárcar, Andosilla-San Adriángo kolektorea		184.000			184.000
3.- Tafalla-Erriberriko araztegia handiagotzea		221.000			221.000
4.- Tuterako araztegia			1.170.000		1.170.000
5.- Cárcar, Andosilla-San Adriángo araztegia				473.000	473.000
Guztira	70.000	930.000	1.170.000	473.000	2.643.000

Obra hauek guztiak espediente bakarrean biltzeko arrazoiak Kohesio Fondon Erregelamenduan bilatu behar da, honek ezartzen baitu gutxienez 10 milioi Ecu (1.600 milioi pezeta inguru) jotzen duen inbertsioa, obra edo obra multzoa bere babesean etorri ahal izateko.

Espedientean biltzen diren obren ezaugarri teknikorik nabarmenenak ondoren aipatzen direnak dira.

Tuterak, Nafarroako bigarren gunera urbana tamainari dagokionez, ez du inolako arazketarik, eta isuriak Ebro ibaira doaz zuzenean. Lehen proiektuak aintzat hartzen du kolektore igoerlea, egun egiten diren isuriak bildu eta araztegiara eramango dituen. Bigarren proiektuan araztegiari berari ekingo zaio. Aurreikusten duen arazketasistemak bi etapatako iragazki perkoladorea dauka, lehen mailako, maila ertaineko eta azken mailako dekantatzaioa eskainiko dituen.

Tafallak eta Erriberri badute, 1988 urteaz geroztik, lohi bizkortuen bidezko araztegia, Erriberriko udal dermioan dagoena; honek ongi funtzio-

natzen duen arren, ez da nahikoa izan jasotzen den emari guztia tratatzeko, eta horregatik jasotzen den emariaren heren bat baino gehiago lehen mailako tratamendua baizik hartu ez duela isuri egin behar izaten da, emariaren 2/3 baizik ezin delarik bigarren mailako tratamendura pasatu. Horegatik proiektuak aintzat hartzen du planta hau handiagotzea, iristen den bolumen guztia 91/271 Jarraibideak ezartzen duenaren arabera tratatu ahal izateko. Horretarako, proiektuak biltzen du bere baitan lehen mailako dekantatzaile berri bat, zama handiko iragazki perkoladorea eta bigarren mailako dekantatzailea handiagotzea.

Multzoan sartzen diren beste bi proiektuek Cárcar, Andosilla eta San Adrian herrietako urak biltzen eta tratatzen dituzte, herri horietan, orain arte, ez baita inolako arazketarik egiten. Kolektore-igoerleak, proiektuaren arabera, isuriak biltzen ditu araztegiraino eramateko. Araztegiak bi etapatako iragazki perkoladorea izango du, bere lehen mailako, maila ertaineko eta azken mailako dekantatzaileekin.

3. Eraskina

Entitate pribatuek hondakin-urak arazteko garatu dituzten lanen inbertsioei eman zaizkien laguntzen zerrenda.

Eskaera eguna	Enpresa	Herria	Azalpena	Eman den eguna	Aurrekontua	%	Dirulaguntza
96/02/6	Bar San Donato	Ettxarri-Aranatz	Hondakin-uren aterabidea eta ponpatzea	6/06/96	1.639.762	25	409.941
96/03/12	Navarra Trout, S.A.	Esa	Hondakin-urak tratatzeko iragaziak paratzea	6/06/96	15.954.646	15	2.393.197
96/07/4	A.P. Amortiguadores, S.A.	Ororbia	Pintura lerroetatik datozen isurkiak tratatzeko sistema paratzea	27/08/96	33.479.860	15	5.021.979
96/07/31	Miasa	Iruñea	Industri hondakin-urak tratatzeko planta	27/08/96	5.716.429	25	1.429.107
96/08/1	B.S. Electrodomesticos, S.A.	Ezkizotz	Xafrazio pinturaren instalazioetik datozen isurkiak gutxiagotzea-birtziklatzea	29/10/96	37.500.000	15	11.250.000
96/08/12	Bonduelle España, S.A.	Milagro	Isurkiak hobetzea eta gutxiagotzea	2/10/96	14.601.500	15	2.190.225
96/08/13	Intermalta, S.A.	San Adrián	Hondakin-urentzako araztegiak birregokitzea eta handiagotzea	15/10/96	97.128.090	15	14.569.214
96/08/9	Industrias Cousin Freres, S.L.	Burlata	Olioak desagerrarazteko ekipoa paratzea	1/10/96	7.000.000	15	1.050.000
96/08/8	Articulos Ferreteria, S.A.	Altsasu	Araztegia birregokitzea	1/10/96	3.248.357	25	812.089
96/08/23	Hormigones Arga, S.A.	Orkoien	Hormigoi plantatik datozen isurkiak birtziklatzea eta berriz erabiltzea	1/10/96	21.690.751	40	8.676.300
96/08/28	Bodegas (4 Empresas)	Cintruénigo, Cascante, Murchante	Isurkien nolakoa atzemateko azterketa	2/10/96	910.000	50	455.000
96/10/7	Navarra Trout, S.A.	Esa	Iragazien errendimendu azterketa	15/11/96	2.005.940	50	1.002.970
96/10/24	Sagarte, S.A.	Lakuniza	U.H.ko kolektore orokorrari lotzea	12/12/96	1.397.493	25	349.373
96/10/31	Embutidos Arbizu, S.A.	Arbizu	U.H.ko kolektore orokorrari lotzea	12/12/96	857.123	25	214.281
					243.129.951		49.823.676

Lezegalden proiektaturiko obrei eta Aralar-Ultzamako beste leze batzutan egin direnei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Lezegalden proiektaturiko obrei eta Aralar-Ultzamako beste leze batzuetan egin direnei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko otsailaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, hau izenpetzen duenak, Parlamentari Talde Sozialistari atxikiriko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Lezegaldeko lezearen babesari buruz eginiko galderari dagokionez, erantzun hau igortzen dizu:

1.- Noiz sortu zitzaion Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari alde honetan jarduketarik egiteko ideia? Toki entitate, erakunde edo eta elkarteren batek eskatu du horrelakorik egiterik?

Mazizo karstikoetako lezeak duela 30 bat urte hasi ziren ixten. Zehazki, Aralar mendian, duela hogeita zazpi urte egin ziren Astizko lezea ixteko obrak. Jarduketa horiek, eskuarki, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ekimena harturik burutzen dira, lezeak ondarearen galtzetik eta istripu arriskuetatik babesteko eta akui-feroak zaborrak eta hildako animaliek eragiten duten kutsaduratik babesteko.

2.- Lezegaldeko proiektu hau Aralar mendiko gainontzeko lezeen segurantza hobetuko duen beste jarduketa-proiektu zabalago baten barruan al dago? Baiezkoan jakin nahi da proiektuaren izena, inbertsioak denetara zenbat jotzen duen eta zenbat denboratan burutuko den.

Ez dago proiekturik Aralar mendiko lezeak ixteko. Urtero, edozein mazizo karstikotako lezeak ixtea proposatzen da, beharrezkotzat joz gero.

3.- Zenbat diru inbertitu da denetara Aralar mendiko itxituretan? Jarduketan nolakoa zehaztea eskatzen da, hau da, proiektuaren izena, non

burutu den, lezearen izena, inbertsioa denetara eta obrak noiz burutu ziren.

Ondoren, Aralar mendian bost urte honetan eginiko obrak aipatuko dira, nahiz eta horiek baino lehen, zenbait lezetan, txikiagoak ziren jarduketak izan ziren.

– Beingo-Leza (NA 274/114) lezea ixtea, Aralar mendiko Jutzazelain.

Obra: Bi aldeko harri-horma, sarbidetik goitik behera.

Noiz: 1991ko maiatzean

Inbertsioa: 999.975 pezeta.

– Ormazarreta I eta II lezeak (NA 470 eta 1246/114) ixtea, haiek babesteko, Aralar mendiko Ormazarretan.

Obra: Harri-horma, harri-lubeta eta piketeak, alanbrezko sarearekin

Noiz: 1992ko urrian

Inbertsio: 4.989.707 pezeta

– Akelar lezea (NA 473/114) ixtea, Alliko konzejuko dermioan, Aralar mendian.

Obra: harri-horma, ezkerreko eskuinerako harri-xtabala, ixtearen euskarri, eta alanbrezko hasia, piketeekin.

Noiz: 1994ko otsailean

Inbertsioa: 7.678.135 pezeta.

– Mentrokillo lezea (NA 41/114) babestea, Astizko dermioan, Aralar mendian.

Obra: Harri-horma eta harri-lubeta, burdinazko atakarekin.

Noiz: 1994ko maiatzean.

Inbertsioa: 6.615.508 pezeta.

– Ormazarreta III, Igaratza I eta Pagomari lezeak (NA 1247, 665 eta 167/114) ixtea, babes-teko, eta hesiak ezartzea, Aralar mendian

Obra: Harri-horma eta alanbrezkoa hesia, hormigoi aurreatezatzuko piketeekin.

Noiz: 1995eko maiatzean.

Inbertsioa: 9.121.160 pezeta.

Bost urte honetan guztira izan den inbertsioa 29.404.485 pezetakoa da.

4.- Bai Lezegalden aurreikusten diren obretan, bai aurretik egindakoetan: jarduketa hauek egin baino lehen ikusizko eragina eta, Iribasen kasuan bezala, eskailera, pasabidea eta itxitura egiteak sorreraz dezaketen eragina baloratzen dituen Ingurugiroaren Txosten derrigorrezkoa egin al da?

Kasu guztietan, Ingurugiro Departamentuaren txostena aginduzkoa denez geroztik, egin egin da txosten hori, nahiz eta Zerbitzu honetan jakin ez zer balorazio mota egin duten Ingurugiroko teknikariek, txostenak balorazioa egokia dela besterik ez baitio.

5.- Proiektatu direnaz aparte, zer beste aukera hartu da aintzat? Zergatik aukeratu da azkenik aukeratu den proiektua? Istripuak galarazteko, nahikoa izango al zen egurrezko hesi bat?

Ez da aukerako azterketarik egin, baina proiektua garatzen ari den teknikariak egokien deritzona aztertzen du.

Zurezko hesia aski izaten da epe laburrera, baina hondaeraza da. Hori dela eta harri-hormazko hesia proposatu zen, hori ere ingurunearekin bat dator eta.

6.- Jarduketa hau eta Plazaola Partzuergo Turistikoak aurreikusten dituenak koordinaturik al daude? Alli eta Astizko lezeetan etorkizunean egingo diren jarduketak berdintsuak al dira? Zer harreman izan dira aipatu Partzuergoarekin?

Ez zaio zuzenean Plazaolako Partzuergo Turistikoari galdetu, uste baita Kontzejuaren esku-mena dela. Izan ere, horrexekin izaten dira harremanak proiektua onartzeko. Alliko eta Astizko lezeak babes-obren xede izan dira jadanik. Hori dela eta ez dira Lezegalden egin asmo direnen antzekoak, arazoak bestelakoak baitira eta, hortakotz, konponbideek ere bestelakoak izan behar dute.

7.- Ahalezkoa al da, obrei ekin baino lehen, Lezagaldeko jarduketa zuinkatzea, alde guztia hartuko zuten neurri eta ekintza-sail baten barruan sartuz, horrela jarduketok bateragarriak izan daitezen herri eta alde hauetan bizi diren biz-

tanleen beharrekin, espedizio espeleologoeekin, eta turismoa modu kontrolatuan egitearekin?

8. galderarekin batera erantzuten da.

8.- Otu al zaio Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari ekimenen bat proposatzea, obrei ekin baino lehen beste jarduketa-ildo batzuk aztertzeke, bai Iribasko Kontzejuarekin, Plazaola Partzuergo Turistikoarekin, Espeleologia Taldeekin eta, finean, obra hauen hasteak kezkatzen duen beste edozein talderekin?

Iribasko Kontzejuak, iazko uztailaren 26an eginitako bilkuran, erabaki zuen baimena ematea Lezegalde lezea hobetu eta babesteko obrak burutzeko, aurkezturiko proiektuaren arabera.

Eskatzen ziren agiri guztiak bideratu eta gero, abenduaren 9an esleitu zen obra eta, komunikabideen bidez, jakinarazten da Iribasko Kontzejuburuak hartaz dituen zalantzen berri. Hori zela eta, erabaki zen obren hastapena atzeratzea eta Kontzejuak haietaz zuen iritzia berriro eskatzea. Hori horrela, abenduaren 20an eginitako bilkuran, Kontzejuak erabaki zuen lezearen inguruan harri-hormazko murrua burutuko zela eta proiektuan aipatzen zen zaldaina kenduko zela, ordea.

Kontzejuaren irizpide berri horrekin, esleipen-hartzaileari obrak hasteko agindua eman zaio. Horiek, Kontzejuak nahi bezala, hasi dira, baina ez zaio Plazaolako Partzuergo Turistikoari bere iritzia galdetu, uste baita Kontzejuak behar duela kontsulta hori koordinatu.

Espeleologia taldeei ere zaie zehazki galdetu, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan etengabe haiekin harremanetan dagoen espeleologoa baitago. Gainera, lezearen kanpoko babesa da, haien ekintzak batera galarazten ez dituenak.

Hau jakinarazten dizut, Parlamentuko Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko otsailaren 4a

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Gobernuak 1997ko otsailean Nafarroako Parlamentura igorritako Foru Agindu eta Ebazpenak, haien bidez gauzatutako aurrekontu aldaketak eta Kontuen Ganbarak horri buruz emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Kontuen Ganbarari txosten bat eskatzea erabaki zuen, aurrekontu aldaketak, Nafarroako Gobernuak 1997ko otsailean Nafarroako Parlamentura igorritzen Foru Agindu eta Ebazpenen bidez gauzatuak, legezko ote diren aztertzeko.

Halaber, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko martxoaren 24an egindako bilkuran, Kontuen Ganbarak Foru Agindu eta Ebazpen haiei buruz eman duen txostenaz jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen, baita txosten hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea ere.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“**371/1996 FORU AGINDUA**, abenduaren 16koa, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak emana, kreditu transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak kreditu transferentzia eskatu du, “Azterketak eta proiektuak” kontusailetik, 07520-3 lerrotik, 500.000 pezeta, “Askotariko gastuak” kontusailera, 07480-0 lerrora, 250.000 pezeta, eta “Bidaiak eta dietak” kontusailera, 07490-8 lerrora, 250.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikuluko 2. puntuaren arabera, kasuan kasuko Departamentuan, Nafarroako Gobernuak Kontseilariak programa bereko kredituen artean transferentziak baimen ditzakete. Hori horrela,

AGINDU DUT:

Lehen.- 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu transferentzia hau egitea: 11000-6092-6111 kontusailetik, 10000 proiektutik, 07520-3 lerrotik, “Azterketak eta proiektuak” izenekotik, 500.000 pezeta, 11000-2269-6111 kontu-

sailera, 10000 proiektura, 07480-0 lerrora, “Askotariko gastuak” izenekora, 250.000 pezeta, eta 11000-2300-6111 kontusailera, 10000 proiektura, 07490-8 lerrora, “Bidaiak eta dietak” izenekora, 250.000 pezeta.

Bigarrena.- Foru Agindu hau Nafarroako Parlamentuari, Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ekonomi Zuzendaritza Nagusiari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 16a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi”

“**393/1996 FORU AGINDUA**, abenduaren 30ekoa, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak emana, kreditu sorkuntzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak kreditu gehikuntza eskatu du, “Toki entitateendako dirulaguntzak, kiroldegia eraikitzeko” kontusailean, 90021-2 lerroan, 96.006.678 pezeta. “Kirol Kontseilu Nagusiko transferentziak” aurrekontu kontusaileko, 35475-7 lerroko dirusarrerara handiagoen arabera finantzatzeko da.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. puntuko a) letraren arabera, Administrazio Publikoek Foru Komunitateko Administrazioarekin batera finantzatzeko diru-ekarpenen ondoriozko dirusarrerak aurrekontutetako gastu-egoeran kredituak sortzen ahalko dituzte, gastu horiek, beren izaeragatik, haien helburu edo xedeen barruan badaude. Artikulu horrek, 2. puntuan, ezartzen du Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria dela eskudun aurrekontu aldaketa horiek baimentzeko. Hori horrela,

AGINDU DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen aurrekontuko kontusail honetan, kreditu sorkuntza hau egitea:

– 43000-7600-4571 kontusailean, 60000 proiektuan, 90021-2 lerroan, “Toki entitateendako dirulaguntzak, kiroldegiak eraikitzeko” izenekoan. 96.006.678 pezeta.

Aurrekontuetako kontusail honetan izaniko dirusarrera handiagoen kontura finantzatu da:

– 43000-7000 kontusailean, 60000 proiektuan, 35475-7 lerroan, “Kirol Kontseilu Nagusiko transferentziak” izenekoan.

Bigarrena.- Foru Agindu hau Nafarroako Parlamentuari, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 30a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi”

“394/1996 FORU AGINDUA, abenduaren 30ekoa, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak emana, kreditu gainerapenaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuak kreditu gainerapena eskatu du, 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan, “Alderdi politikoendako dirulaguntza” kontusailari, 396-0 lerroari dagokion 1995eko ekitaldiko likidazioan ezabaturiko kreditu soberakinetik, 58.804.351 pezeta

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 52. artikulua araberan,

AGINDU DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen aurrekontuan gaineratzea 1995eko ekitaldiko likidazioan “Alderdi politikoendako dirulaguntza” 00001-4810-1121 kontusail berriari, 10000 proiektuari, 335-0 lerroari ezabaturiko kreditu soberakina. 58.804.351 pezeta.

Bigarrena.- Kreditu gainerapenaren finantzazioa “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” izena duen 11400-8700 kontusaileko, 12000 proiektuko 33725-6 lerroko dirusarrera handiagoren kontu izango da.

Hirugarrena.- Foru Agindu hau Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Idazkaritza Teknikoari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 30a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi”

“395/1996 FORU AGINDUA, abenduaren 30ekoa, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak emana, kreditu gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kreditu gehikuntza eskatu du, “Epaia betearaztea. Gastu juridiko eta kontentziosoak” kontusailean, 18025-2 lerroan, 23.200 pezeta. “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusaileko, 33725-6 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatu da.

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 15/1995 Foru Legeko 4. artikuluko 1. puntuan eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluan ezarrikoaren arabera,

AGINDU DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu gehikuntza hau egitea: “Epaia betearaztea. Gastu juridiko eta kontentziosoak” 52000-2263-4112 kontusailean, 40000 proiektuan, 18025-2 lerroan, 23.200 pezeta. “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” 11400-8700 kontusaileko, 12000 proiektuko, 33725-6 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatu da.

Bigarrena.- Foru Agindu hau Nafarroako Parlamentuari, Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 30a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi”

“396/1996 FORU AGINDUA, abenduaren 30ekoa, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak emana, kreditu gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kreditu gehikuntza eskatu du, “Sektore publikoko akzioak erostea” kontusailean, 08770-8 lerroan, 70.000.000 pezeta. “Urtegiak. Nafarroako Ubidea” kontusaileko kreditu eskuragarrien kontu, 49.000.000 pezeta, eta “Bulegoko eta laborategiko ekipoak eta bestelako material inbenta-

riagarria" kontusaileko kreditu eskuragarrien kontu, 21.000.000 pezeta, finantzatuko da.

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 15/1995 Foru Legeko 4. artikuluko 1. puntuan eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluan ezarrikoaren arabera,

AGINDU DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu gehikuntza hau egitea: "Sektore publikoko akzioak erostea" 11300-8500-6127 kontusailean, 14002 proiektuan, 08770-8 lerroan, 70.000.000 pezeta. "Urtegiak. Nafarroako Ubidea" 61210-6014-5123 kontusaileko, 1001 proiektuko, 96034-7 lerroko, kreditu eskuragarrien kontu, 49.000.000 pezeta, eta "Bulegoko eta laborategiko ekipoak eta bestelako material inbentariagarria" 61300-6059-5134 kontusaileko, 20000 proiektuko, 24790-0 lerroko, kreditu eskuragarrien kontu, 21.000.000 pezeta, finantzatuko da.

Bigarrena.- Foru Agindu hau Nafarroako Parlamentuari, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 30a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi"

"397/1996 FORU AGINDUA, abenduaren 30ekoa, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak emana, kreditu transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kreditu transferentzia eskatu du, Departamentu horretako 40000 Proiektuko II Kapituluko bederatzi kontusailetatik, 11.000.000 pezeta guztira, 45001 proiektuko II Kapituluko bi kontusail kontusail-izendapenaz hornitzeko. Kontusail horien izenak hauexek dira: "Bestelako osasun etxeetako osasun laguntza", 8.000.000 pezeta, eta "San Juan de Dios klinikarekiko ituna", 3.000.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikuluko 2. puntuaren arabera, kasuan kasuko Departamentuan, Nafarroako Gobernu Kontseilariak programa bereko kredituen artean transferentziak baimen ditzakete. Hori horrela,

AGINDU DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kapitulu ekonomiko bereko eta programa ezberdinetako kontusailen artean kreditu transferentzia egitea, idazpen kontable hau sorrarazten duena:

Kodeak	Izena	Pezetak
Abonuak		
52500-2590-4112, proiektua 45001, lerroa 23330-5	Bestelako osasun etxeetako osasun laguntza	8.000.000
52500-2590-4112, proiektua 45001, lerroa 23340-2	San Juan de Dios Klinikarekiko ituna	3.000.000
	Guztira	11.000.000

Kodeak	Izena	Pezetak
Karguak		
52000-2120-4112, proiektua 40000, lerroa 17960-2	Eraikinak konpondu, mantendu eta zaintzea	400.000
52000-2220-4112, proiektua 40000, lerroa 18000-7	Telefono, postak eta telegrafo bidezko komunikazioak	3.300.000
52000-2230-4112, proiektua 40000, lerroa 18010-4	Garraio eta pleit gastuak	200.000
52000-2249-4112, proiektua 40000, lerroa 18020-1	Aseguruak	1.550.000
52000-2269-4112, proiektua 40000, lerroa 18040-6	Bestelako askotariko gastuak	1.800.000
52000-2271-4112, proiektua 40000, lerroa 18070-8	Garbiketa eta txukunketa zerbitzua	200.000
52000-2279-4112, proiektua 40000, lerroa 18090-2	Hirugarrenek eginiko bestelako lanak	800.000
52000-2284-4112, proiektua 40000, lerroa 18130-5	Garbitzeko materiala	250.000
52000-2300-4112, proiektua 40000, lerroa 18140-2	Dietak eta bidai gastuak	2.500.000
	Guztira	11.000.000

Bigarrena.- Foru Agindu hau Nafarroako Parlamentuari, Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari, Kontabilitate

eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailtza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 30a

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi”

“FORU AGINDUA, 1996ko abenduaren 11koa, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak emana, 1996ko aurrekontuko kontusailen artean kreditu transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik, 1996rako aurrekontuko kontusailetan kreditu gehikuntza bat egitea beharrezkoa dela, beste kontusail batetik transferituz, kontutan harturiko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 46.2 artikulua araber, Kontseilariak, nor bere Departamentuan, artikulua horretan aipatzen diren kreditu transferentziak baimen ditzaketela.

Ikusirik, halaber, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuan duen Kontuhartzailtza delegatuak aldeko txostena eman duela.

AGINDU DUT:

1.- 1996rako aurrekontuan, idazpen kontable hau sorrazten duen kreditu transferentzia egitea:

a) Kargua 200.000 pezeta.
82210-6020-7512, 30350-8 lerroa

b) Abonua 200.000 pezeta
82210-2266-7514, 30240-4 lerroa.

2.- Foru Agindu hau Turismo Zerbitzuari, Nafarroako Parlamentuari eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan duen Kontuhartzailtza delegatuari jakinaraztea, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 1996ko abenduaren 11

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat”

“FORU AGINDUA, 1996ko abenduaren 11koa, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak emana, 1996ko aurrekontuko kontusailen artean kreditu transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik, 1996rako aurrekontuko kontusailetan kreditu gehikuntza bat egitea beharrezkoa dela, beste kontusail batetik transferituz, kontutan harturiko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 46.2

artikulua araber, Kontseilariak, nor bere Departamentuan, artikulua horretan aipatzen diren kreditu transferentziak baimen ditzaketela.

Ikusirik, halaber, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza eta Turismo Departamentuan duen Kontuhartzailtza delegatuak aldeko txostena eman duela.

AGINDU DUT:

1.- 1996rako aurrekontuan, idazpen kontable hau sorrazten duen kreditu transferentzia egitea:

a) Kargua 18.000.000 pezeta.
82210-6021-7512, 30370-2 lerroa

2.000.000
82210-6021-7512, 98017-8 lerroa

b) Abonua 20.000.000 pezeta
82210-2400-7514, 30280-3 lerroa.

2.- Foru Agindu hau Turismo Zerbitzuari, Nafarroako Parlamentuari eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan duen Kontuhartzailtza delegatuari jakinaraztea, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 1996ko abenduaren 11

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat”

“627/1996 EBAZPENA, abenduaren 10ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik, Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Idazkaritza Teknikoak kreditu transferentzia proposatu duela “Dietak, joan-etorriak eta bidaiak gastuak” kontusailetik, 06780-4 lerrotik, “Aparteko orduak” kontusailera, 06730-8 lerroa, 185.000 pezeta, menpeko langileen aparteko orduak egiteagatik aurreikusiriko gastuari aurre egiteko konfiantza aski ez baita.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46.2 artikuluan ezarritakoren araber, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskurordetu ditudan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehen. 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu transferentzia hau egitea: “Dietak, joan-etorriak eta bidaiak gastuak” 10100-2300-

6113 kontusailetik, 00000 proiektutik, 06780-4 lerrotik, "Aparteko orduak" 10100-1702-6113 kontusailera, 00000 proiektura 06730-8 lerroa, 185.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Ekonomi eta Ogasun Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Kontuhartzaitza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"629/1996 EBAZPENA, abenduaren 12koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kreditu transferentzia eskatu du "Bulego berriak egokitzea" gastu aurrekontuko kontusailean, 25970-3 lerroan, 4.000.000 pezeta. "Azterketak, inkestak eta bestelako estatistika lanak" kontusaileko, 97010-5 lerroko kreditu eskuragarrien kontu finantzatu da.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikulua arabera, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak eskudun da kapitulu ekonomiko bereko kredituen artean transferentziak baimentzeko, baldin eta programa horien xedeak aldatzen ez badituzte. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumen arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu transferentzia hau egitea: "Bulego berriak egokitzea" gastu aurrekontuko 71300-6031-7111 kontusailean, 00000 proiektuan, 25970-3 lerroan, 4.000.000 pezeta. "Azterketak, inkestak eta bestelako estatistika lanak" 71320-6092-5512 kontusaileko, 10001 proiektuko, 97010-5 lerroko kreditu eskuragarrien kontu finantzatu da.

Bigarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzaitza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 12a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"633/1996 EBAZPENA, abenduaren 12koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kreditu transferentzia eskatu du "Bulegoko altzariak, idazmakinak eta kalkulagailuak" gastu aurrekontuko kontusailean, 25980-0 lerroan, 1.000.000 pezeta. "Azterketak, inkestak eta bestelako estatistika lanak" kontusaileko, 97010-5 lerroko kreditu eskuragarrien kontu finantzatu da.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikulua arabera, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak eskudun da kapitulu ekonomiko bereko kredituen artean transferentziak baimentzeko, baldin eta programa horien xedeak aldatzen ez badituzte. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumen arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu transferentzia hau egitea: "Bulegoko altzariak, idazmakinak eta kalkulagailuak" gastu aurrekontuko 71300-6050-7111 kontusailean, 00000 proiektuan, 25980-0 lerroan, 1.000.000 pezeta. "Azterketak, inkestak eta bestelako estatistika lanak" 71320-6092-5512 kontusaileko, 10001 proiektuko, 97010-5 lerroko kreditu eskuragarrien kontu finantzatu da.

Bigarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzaitza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 12a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"634/1996 EBAZPENA, abenduaren 12koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu sorkuntzaren bidezko aurrekontu aldaketak baimentzen dituena.

Toki Administrazioiko Departamentuak kreditu sorkuntza eskatu du "Udalek Estatuarekin itundurik ez dauden zergetan parte hartzea" kontusailean, 10750-4 lerroan, 95.616.398 pezeta. "Udalek Estatuko dirusarreretan parte hartzea" kontusaileko, 34500-3 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatu da.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikulua arabera eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumen arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen aurrekontuan kreditu sorkuntza hau egitea: "Udalek Estatuarekin itundurik ez dauden zergetan parte hartzea" 21200-4600-9121 gastu kontusailean, 12002 proiektuan, 10750-4 lerroan, 95.616.398 pezeta. "Udalek Estatuko dirusarreretan parte hartzea" 21200-4000 kontusaileko, 12002 proiektuko, 34500-3 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatu da.

Bigarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Toki Administrazioako Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzaitza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 12a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"636/1996 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Lehendakaritza Departamentuko Lan Harremanen Zerbitzuak kreditu gehikuntza eskatu du "Epaia betearaztea" kontusailean, 01780-7 lerroan, 3.465.575 pezeta. "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" kontusaileko, 33725-6 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatu da.

1996rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 15/1995 Foru Legeko 4. artikuluko 1. puntuko a) letraren eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikulua arabera eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumen arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu gehikuntza hau egitea: "Epaia betearaztea" 04000-1709-1226 kontusailean, 20000 proiektuan, 01780-7 lerroan, 3.465.575 pezeta. "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" 11400-8700 kontusaileko, 12000 proiektuko, 33725-6 lerroko dirusarrera handiagoen kontu finantzatu da.

Bigarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Lehendakaritza Departamentuko Lan Harremanen Zerbitzuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzaitza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 16a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"637/1996 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak kreditu transferentzia eskatu du "Kultur eta artezko intereseko ondasunak eskuratzea" gastu aurrekontuko kontusailean, 14410-8 lerroan, 10.500.000 pezeta. "Nafarroako Agiritegia. Egoitza berria" kontusaileko, 15130-9 lerroko kreditu eskuragarrien kontu finantzatu da.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikulua arabera, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak eskudun da kapitulu ekonomiko bereko kredituen artean transferentziak baimentzeko, baldin eta programa horien xedeak aldatzen ez badituzte. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumen arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu transferentzia hau egitea: "Kultur eta artezko intereseko ondasunak eskuratzea" gastu aurrekontuko 42000-6056-4511 kontusailean, 50000 proiektuan, 14410-8 lerroan, 10.500.000 pezeta. "Nafarroako Agiritegia. Egoitza berria" 42230-6091-4521 kontusaileko, 52000 proiektuko, 15130-9 lerroko kreditu eskuragarrien kontu finantzatu da.

Bigarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Kultura Zuzendaritza Nagusiari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzaitza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 16a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"641/1996 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu

transferentziaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kreditu transferentzia eskatu du "Jabetza birrantolatzeko obrak, 5b helburu eskualdeko lurzati kontzentrazioa" gastu aurrekontuko kontusailean, 97030-0 lerroan, 11.136.909 pezeta. "Esne kuotak eskuratzea, abeltzaintzako sektorea birbanatzeko" kontusaileko, 26280-1 lerroko kreditu eskuragarrien kontu finantzatu da.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikulua arabera, Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria eskudun da kapitulu ekonomiko bereko kredituen artean transferentziak baimentzeko, baldin eta programa horien xedeak aldatzen ez badituzte. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordeturik dauzkadan eskumen arabera,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1996rako indarra duen gastu aurrekontuan kreditu transferentzia hau egitea: "Jabetza birrantolatzeko obrak, 5b helburu eskualdeko lurzati kontzentrazioa" gastu aurrekontuko 71400-6019-5312 kontusailean, 20002 proiektuan, 97030-0 lerroan, 11.136.909 pezeta. "Esne kuotak eskuratzea, abeltzaintzako sektorea birbanatzeko" 71120-6090-5313 kontusaileko, 10001 proiektuko, 26280-1 lerroko kreditu eskuragarrien kontu finantzatu da.

Bigarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuari, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari, Kontabilitate eta Aurrekontu Atalei eta Departamentu hartako Kontuhartzailetza delegatuari jakinaraztea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 16a

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"642/1996 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu gehikuntzaren bidezko aurrekontu aldaketa baimentzen duena.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kreditu gehikuntza eskatu du "Kooparatibetatik kanpoko araubidean industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako dirulaguntzak" kontusailean, 97017-2 lerroan, 10.147.125 pezeta. "Nekazaritzako elikagaien industriarendako laguntzak, I+G jardueretarako" kontusaileko, 26370-0 lerroko eta "Azterketak, inkestak eta bestelako estatistika lanak" kontusaileko, 97010-5

lerroko kreditu eskuragarrien kontu finantzatu da, 6.000.000 pezeta eta 4.147.135 pezeta, hurrenez hurren.

